

Herririk Herri |2|
Durango eta lurretako wifi sareen
ikerketa Interneten dago ikusgai



Berbaz |10|
N. Moreno: "Ezker Abertzaleak Elorrio
gobernatzeko gaitasuna erakutsi du"

Kirola |19|
Futboleko Berrizi oso aldapa gora ipini
zaio ohorezko mailari eustea

Udalaren aldetik "informazio falta" salatu du DAZek

Durango• Alde Zaharreko karkabak konpontzen hasi da udala, eta amaitu dute Kalebarria eta Komentukalea bitarteko gunea. Durangoko Alde Zaharra elkarteak salatu duenez, "ez gaituzte informatu alde zaharreko erabakien gainean; borondate politikoa falta izan da".

2

ELAren arabera "lege iruzurra" egon da udal kontratazioetan

Abadiño• ELAren esanetan, "aldi baterako kontraturiko langileak finkoak diren postuetan" dabiltza. Egoera hori zuzentzeko eskatu duen langilea "kaleratu" izana ere salatu dute. Alkateak dio langile horri lan kontratua amaitu zaiola.

6

Hamaika musikariren kontzertu akustikoak domekan, Arriolan

KULTURA• Besteak beste, Sorkun, Anari, Petti eta Joseba Irazoki batu-ko dira etzi Arriolako oholtzan. Euskal Herrian izaten diren emanaldien bilgune bihurtu gura duen *musika-zuzenean.com*-en aldeko jaialdia da.

11



• **Abadiño**
Ezker abertzaleak "interes pribatuaren araberrako aldaketa" salatu du

6

• **Mallabia**
Musika, bertsoak eta kirol ekitaldiak gozagai datozen aste bietan

3

• **Mañaria**
Azoka ospatuko dute domekan

3

Boto eskearen dantzari ekin diote alderdiek

> Durangalde osoan zehar dabiltza alderdiak, herririk herri euren egitasmoak aurkezten

> PSE-EEK, Aralarrek, EBk eta Bilduk euren ikuspuntuak agertu zituzten Plateruenean

7-8



Urdaspal Bolinaga (Bildu), Alba Gutierrez (EB), Andoni Unzalu (PSE-EE) eta Dani Maeztu (Aralar) debate politikoan. K. A.

PREST
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa *unibertsitate masterra*

ARRASATE MAIATZAK 19 osteguna, 17:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI MAIATZAK 21

larunbata, 11:00

IRUN MAIATZAK 28

larunbata, 11:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA MAIATZAK 14 larunbata, 11:00

ARETO
NAGUSIAN
Elorri aurretik
izena eman!



HERRIRIK HERRI >

■ DURANGALDEA

Durango eta Iurretako edozein txokotan 10 Wifi sare daude

Uni Eibar-Ermuako informatika ikasleak herriotako wifi mapa egiten dabilta



Hamar taldetan egin dute neurketa, ordenagailu eramangarri, mugikor eta bestelako gailuekin. K.A.

Gure inguruan zenbat Wifi sare dagoen, zer indar daukaten eta babestuta dauden ala ez ikusteko azterketa egin dute asteon Uni Eibar-Ermua ikasleak informatikako zikloetako ikasleek. Atera duten ondorioetako bat Wifi sareen hedakuntza "ikaragarria" dela da: "Edozein gunetan hamar Wifi saretik gora detektatzea gauza arrunta da",

Oskar Gisasola 'sareak' ikasgaiko irakaslearen berbetan.

Sare irekien arriskuak

Wifi sareen %51 edozein erabiltzaileentzako zabalik daudela azaldu du Gisasolak. Sare horiek pasahitz barik edukitzeak arriskuak dakartzala adierazi du. Interneteko konexioa partekatzearen arriskua txikiena dela dio: "Badaude arrisku

handiagoak; esaterako, zure etxeko ordenagailuan kanpoko norbait sartzea eta zure dokumentuak, argazkiak, banketxeko pasahitzak... bere esku lagatzea".

Beste hainbat herritan eta Durango eta Iurretan detektatu dituzten Wifi sareen informazioa Interneten eskegi dute, eta www.iesunibhi.com webgunean ikusi daiteke. ■ A.Ugalde

■ DURANGO

Udalaren "informazio falta" salatu du DAZek

Arartekoarengana jo dute auzokideek, eta udalak honi ez erantzun izana kritikatu dute

Alde zaharreko karkabak konpon-tzen hasi da Durangoko Udala, eta Kalebarria eta Komentukale artekoa berritzen amaitu dutela jakinarazi berri dute. Alde zaharrean egindako hainbat beharren gainean mintzatu da alkatea; lur konponketak, usoen harrapaketak, kalean txiza egiteagatik jarritako isunak... Horrez gainera, Durangoko Alde Zaharra elkartegaz izandako elkarlana eskertu du.

DAZeko kideek, ostera, "komunikazio falta" egon dela

diote: "Udalagaz batzartzeko borondatea behin eta berriro agertu arren, ez gaituzte informatu alde zaharrerako erabakien gainean". Karkaben egoera dela eta auzokide batek Arartekoarengana jo duela eta udalak Arartekoari ez diola erantzun salatu dute. DAZen ustez, "diru gutxigaz eta borondate politikoagaz gauza asko hobetu daitezke". PSE-EEk ohar baten azaldu duenez, "oposizioak ez du Arartekoaren informazio eskari berririk izan". ■ A.U.



Kalebarria eta Komentukalea bitarteko karkaba berritu dute.

■ IZURTZA

Lanpostua esleitzeko azken proba astelehenean

Maiatzaren 16an, astelehenean, udaletxean burutuko dute udaleko garbitzaile posturako oposaketara aurkeztu eta beste bi azterketen galbaheak igaro dituzten hiru lagunek azken proba.

Lehiaketa publikoan parte hartzeko 50 lagunek baino gehiagok eman zuten izena, eta aurreko bi probak egin eta gero, hiru lagunek dute asteleheneko proba praktikoa egiteko aukera.

Oposaketako aurreko bi azterketak gainditu dituzten hiru lagun azken proban

Lehiaketa-oposizio honen bitartez, lanaldi erdiko lanpostu bat esleitzuko du udalak. Besteak beste, udaletxea, medikua-ren kontsultategia, jubilatuen lokala eta frontoiko aldagelak garbitzea izango du hautatzen duten langileak lana. Proba egunean bertan aurreikusten dute lanpostua esleitzea. ■ I.E.

Udalak irailera arte luzatu dio alokairua Erralderi

Iraila aurretik Berrizen hiltegia egiteko finantziario proiektua aurkeztu beharko du Erraldek. Ordura arte alokairua luzatzea erabaki du Durangoko Udaleko Hirigintza batzordeak, eta Erraldek proiektua epe horren barruan aurkezten badu urte birako luzatuko dio kontratua, tarte horretan hiltzeko lanak egiteko.

Orain arteko kontratua amaitu arren, Herria auzo elkar-teak proiektua aurkezteko ekainera arteko epea proposatu zuen. Erraldek, ostera, denbora gehiago beharko duela eta udazkene-ra arte luzatzeko eskatu zuen.

Esperientzia pilotoa

Erraldek esperientzia piloto bat burutuko du. Analitiken konparazio-azterlan bat egingo da Isuntzako arraun taldeko arraunlarien artean. Arraunlari batzuek goi mailako kirolarien ohiko dieta jarraituko dute eta besteek erraldetxoak izango dituzte dietako proteina eta burdina ekarpen modu bakarra. ■ A.U.

Krisiari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Caritas Tabirak

Durangoko Caritasek datorren asterako krisiaren gaineko jardunaldiak antolatu ditu. Gaia hainbat ikuspegitik aztertzeko, hitzaldibat eta mahai-inguru bat antolatu ditu; maiatzaren 17an eta 19an, 20:00etan, Jesuitetan.

Martitzenean eta egunean izango dira jardunaldiak, Jesuitetan, 20:00etan

Hainbat esparrutako pertsonak krisiak zelan eragin dien kontatuko dute

Hilaren 17an Bernart Baltza Agiantza kooperazioko enpresako kudeatzaileak *Egoera ekonomikoak fedea berritzen du* hitzaldia eskainiko du. Hilaren 19an, berriz, krisiak zelan eragin dien kontatuko dute mahai-inguruan Agiantzako kideek, Caritasek, enpresari batek eta sindikatu bateko kide batek. ■ A.U.

Lanerako gertu!

MGEP MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
www.mondragon.edu/gep

Oñati gestio heziketa
www.mondragon.edu/enpresagintza

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2011-2012
Informazio jardunaldiak

MGEP		OÑATI Gestio Heziketa	
maiatzak 14 (larunbata)	- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak - Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak - Sareko Informatika Sistemen Administrazioa - Fabrikazio Mekanikoko Diseinua - Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa - Industri Ekipoen Mantenimendua	maiatzak 17 (asteartea)	- Administrazioa eta Finantzak - Idazkaritza - Merkataritza, Kudeaketa eta Marketing-a
11:00		18:00	
5001 Gela			
Kontsulta pertsonalak:			
943 71 21 91 E-posta: arriaran@eps.mondragon.edu		943 71 80 09 E-posta: enpresagintza@enpresagintza.mondragon.edu	

Logotipoak: EHETEL, ARA ENpresa, KARBONAKO, KARBONAKO

MA LLABIA

Bertsoak, musika eta kirola gozagai, datozen aste bietan

Mallabiko hamabostaldiaren barruan koruen kontzertua izango da



Koruen kontzertua maiatzaren 21ean izango da, 20:00etatik aurrera.

Mallabiko Hamabostaldia-
ren barruan, bihar
11:30ean, gimnasia
erritmiko erakustaldia eskainiko
dute pilotalekuan eta, 22:00etan,
bertso afaria antolatu dute, Odei
Barroso eta Beñat Gaztelumendi

bertsolariekin, Izar Gorriñ. Maia-
tzaren 21ean, 20:00etan, Jasokun-
de, Mendibil eta Gasteizko Cres-
cendo abesbatzen kontzertua
izango da Andra Maria parrokiari.
Hilaren 22an, azokaren ondo-
ren, 12:00etan, Gazte Alai dantza

taldeak erakustaldia eskainiko du
plazan; toki berean, 13:00etan,
Txondor herri kirol taldekoek egur
handi bat moztuko dute. Hilaren
28an, 22:30ean, Mursego eta The
Wornouts taldeek kontzertua
eskainiko dute. ■ J.Derteano

BERRIZ

Lehentasun handiagoa izango du euskarak udal jardueran

Eguaztenean egindako osoko bil-
kuran Euskararen Erabilera Sus-
tatu eta Normalizatzeko Udal
Ordenantza moldatzea onartu
zuten, aho batez. Udaleko jardue-
tan euskarari lehentasun handi-
agoa ematea dute helburu. Adi-
bidez, udaleko organo informati-
boen eta exekutiboaren bilkuretako
deialdiak eta aktak euskara
hutsan idatziko dira; gaztelaniaz-
ko itzulpena, eskatzen duten par-
taideei igorriko zaie. Bestalde,
udaleko harrerako langileek lehe-
nengo hitza euskaraz egingo dute.

Euskararen aholku batzordea
berreskuratu dute, eta etorkizu-
nean egingo den lanari jarraipen
emango dio. ■ M.O

Behargin bat hil da bihotzekoak jota Industrias Gol enpresan



59 urteko abadiñar bat hil zen, eguaztenean eguenerako gauean,
Industrias Gol enpresan; bihotzekoak jota hil zela adierazi dute.
Enpresa komiteak ohar bateratua kaleratu eta kontzentrazioa-
ko deialdia egin zuen atzo. Heriotza lan istripu ez-traumatiko
legez hartzea exijitu diote enpresari. LABek, beharginek lege-
elkartasuna adierazi dio familiari. ■ M.O

MAÑARIA

16. Nekazaritza eta Artisautza Azoka ospatuko da domekan

Dantza emanaldiak, arrantza txapelketa eta pilota partidak ere izango dira domekan

Domekan, maiatzaren 15ean, da
aurten hamaseigarren edizioa
ospatuko duen Mañariko Neka-
za eta Artisautza Azokaren hitzor-
dua. Azken urteetan lege-
z, 10:00etan hasi eta 14:30 arte, arti-
sauen eta nekazarien askotariko
produktuak izango dituzte bisita-

**Azken urteetan lege-
z, 10:00etan hasita 14:30 arte
izango da azoka zabalik**

riekerakus-mahaietan ikusi, das-
tatu eta erosteko aukeran.

Udalak, pilota eskolak, Muga-
rra Ateneo Cinegético eta Andra
Mari elkarteak antolatuta, hain-
bat ekimen izango dira azokaren
inguruan: Ahuntz Azpigorrien
XIV. Monografikoak, dantza ema-
naldiek, Arrantza Txapelketak eta
arratsaldeko pilota partidek ere
ez dute hutsik egingo: gazteen
mailan, Jaka eta Elezkanok jar-
dunگو dute buruzburu; eta Uriar-
te eta Berasaluze IX lehiatuko dira
nagusien mailan. ■ I.E.

ZALDIBAR

Udako Sanandresetarako kartel lehiaketa martxan ipini dute

Hilaren 26rako aurkeztu beharko dira lanak

Uztaileko San Andres jaiak ira-
gartzeko kartel lehiaketara lanak
aurkezteko aukera iragarri berri
du udalak. Hilaren 26an itxiko
dute aurkezteko epea, eta 31rako
epaia jakitera emango dute.

Nagusien eta umeen lehia bi
bereizi dituzte. Lehenengoen

kasuan, kartela euskarri gogo-
rrean ere aurkeztu beharko da. 250
eta 150 euroko sariak daude bilan
onenentzat. Umeen arteko egile
onenari 100 euroko balioa duen
sari berezia egokituko zaio.

Udaletxean aurkeztu behar
dira lanak. ■ M.O.

GARAI

San Isidro eguna ospatuko dute domeka honetan garaitarrek

Nagusien elkarteak eratu ditu ekitaldiak

Garaiako nagusien San Migel elkar-
teak San Isidro eguna ospatuko du,
ohiturari jarraituz. Domeka, mai-
atzaren 15a, izango da San Isidro,
baserriarren eguna.

Goizeko 10:30ean hasiko da
jaia, elizan egingo duten meza-
gaz. Ondoren, herri bazkarian
elkartzeko deia egin dute antola-
tzaileek; 14:00etan izango da

Herriko Tabernan. Menu oparoa
dastatzeko aukera edukiko dute
bertaratzen direnek: urdaiazpiko
iberikoa eta bakailaoz barrube-
teriko piperrekin hasteko, lega-
tza bigarren platerean eta sukai-
kia hirugarrenean. Pantxineta
izozkiagaz jango dute azkenbu-
rukoan. Gaur da izena emateko
azken eguna, 29 eurotan. ■ M.O.



Pilar Ríos
Durangoko Alkategaia

Durango garatzen

**“Durangok gobernu-aldaketa behar du”
Eta honakoak dira gure konpromisoak:**

- Kudeaketa hobetu
- Enplegu-politika aktiboak
- Babes ofizialeko etxebizitzak eraiki
- Gure nagusiei arreta-zerbitzu osoa eman
- Mugikortasuna hobetu
- Andragunea handitu
- Auzoen birgaikuntza

Zure herriak irabaz dezan



www.socialistasvizcainos.com

ATXONDO

Udalekuetan izena emateko epea hasi du Marixurrikek

Ludotekan maiatzaren 20ra arte eman daiteke izena uztaileko Marixurrikek antolatu dituen udalekuetan. *Jira eta bira, munduari begira* leloa aukeratu du aisialdi elkarteak, eta munduan zeharreko hainbat kulturari keinu egingo diete udalekuetan.

'Jira eta bira, munduari begira' lelopean, hamabostaldia edo hile osoa egin dezakete umeek udalekuetan

Uztailearen lehenengo hamabostaldian, bigarrenen edo hile osoan egin dezakete umeek egonaldia udalekuetan. Hiru urtetik –2008 urtean jaioak umeak– 12 urte bitartekoentzako udalekuak izango dira. Marixurriketik azaldu digutenez, herrian hainbat ekitaldi egingo dituzte, eta irteeraren bat ere antolatuko dute.

Hamabostaldi bateko prezioa 60 eurokoa da, eta hile osokoa 100 eurokoa. Familia ugaria izanez gero edo udalekuek neba-arreba bi edo gehiago apuntatuz gero, gutxiago ordaindu beharko da: 50 euro hamabostaldia eta 80 euro hile osoa. ■ A.U.

ELORRIO

Homologazio probetan emaitza onak salbamentu taldearentzat

Munduko Txapelketarako finalera sailkatu dira Suitzan egindako probetan



28 urte daramatza beharrean Euskadiko Laguntza Txakurren Taldeak.

Joan den asteburuan Suitzan izan dira Euskadiko Laguntza Txakurren Taldeko kideak, Frutigen hirian egindako homologazio probetan. Txakurren trebakuntza maila neurtzeko probetako bat izan da Suitzakoa, eta Elorrioko talde bik lortu dute puntu gehien batzea. Salbamentu lanetan ibiltzeko kalitatezko ziurtagiria lortzeaz gainera, Munduko Txapelketarako sailkatu dira Lorea

Garitaonandia eta Karlos Garitaonandiaren taldeak.

Karlos Garitaonandiak nabarmendu duenez, "txapelketara sailkatzea egindako lanaren aitortza da, baina garrantzitsua erreskate lanetan ibiltzeko txakurren

K. Garitaonandia: "Emaitzen atzean giza talde handia eta ordu askoko lana daude"

trebetasunaren kalitatea da". Laguntza txakurren taldeak 28 urte daramatza lanean, eta Garitaonandiak azaldu duenez, "txapelketa eta proben emaitzen atzean giza talde garrantzitsu bat eta ordu askoko lana daude".

Nazioarteko taldeekin hartu-emanak dauzka Elorrioko dagoen taldeak. Apirilean, esaterako, Canadako taldeen elkartearen bisita jaso zuten. ■ A.Ugalde.

OTXANDIO

V. Uren Jaitsiera Ibilaldia antolatu dute ekainaren 4rako

Mirugain mendi taldeak bosgarren biderrez antolatu du Uren Jaitsiera izeneko iraupen luzeko ibilaldia. Otxandion hasi eta amaituko da, 44 kilometroko ibilbidea eginez. Ekainaren 4rako ipini dute hitzordua, eta goizeko 07:00etan izango du irteera.

Gorabehera askoko ibilaldia izango da Mirugainek eraturakoa; Orixol, Izpizte eta Anbotoko igoko dituzte, esate baterako.

Otxandion hasi eta amaituko da, ekainaren 4an, 44 kilometroko ibilbideagaz

Maiatzaren 24a baino lehen eman beharko da izena Mirugainen egoitzan

Izen-ematea

Maiatzaren 24a baino lehenago, mirugain@otxandio.net helbide elektronikoa erabilita edo Mirugainen egoitzan apuntatu behar da. Antolatzaileek federatuta egoteko gomendatu dute. ■ M.O.

IREKI

BIDEA

EZKERRARI

Bozkatu

aralar

BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI

Lanerako Langile trebatuak



INSTITUTO ESPECÍFICO
DE FORMACIÓN PROFESIONAL
SUPERIOR

ZORNOTZA

GOI MAILAKO LANBIDE
HEZIKETAKO BERRARIAZKO
INSTITUTUA



GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- **Metal-Eraikuntzak.**
- **Web Aplikazioen Garapena.**
- **Ekipo Industrialen Mantenua.**

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- **Merkataritza.**
- **Erizaintzako Zaintza Osagarriak.**
- **Makineria eta Linea - Eroanbideen Instalazio eta Mantenimendu Elektromekanikoa.**
- **Soldadura eta Galdaragintza.**
- **Mikroinformatika Sistemak eta Sareak.**

ESKAINTZA PARTZIALA

- **Erizaintzako Zaintza Osagarriak.**
- **Soldadura eta Galdaragintza.**

SARBIDE-PROBARAKO PRESTAKUNTZA

DATAK

Aurrematrikula: Ekainak 1etik 10era

Matrikula: Uztailak 5etik 11ra

Ziklo guztiak Euskaraz eta Gazteleraz

Tel.: 94 673 02 51

e-mail: info@fpzornotza.com

www.fpzornotza.com

ABADIÑO

"Interesen arabera" jokatzeari salatu du Ezker Abertzaleak

Martitzeneko prentsurrekoan egin zuen Ezker Abertzaleak salaketa hori



Independienteen eta EAJren bozkekin onartu zuten Arau Subsidiarioen aldaketa.

Maiatzaren 5ean Abadiño-ko Independienteen eta EAJren botoekin onartu zuten herriko Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren berri emateko deitu ditu Ezker Abertzaleak hedabideak: "Enpresa konkritu batek bere aktibitatea hor koka-

tzeko interesa izate hutsa ez da nahikoa arrazoi udal arauen aldaketa puntual bati ekiteko", adierazi zuten. Viedsa enpresa izandakoaren inguruko 15.000 metro karratuko lursaila da joan zen aste-ko ezohiko udalbatzarrean indus- trigune legeaz izendatu zutena.

Lasuen Eraikuntzak enpresaren eskari bati erantzunez egin dute, Ezker Abertzalearen berbetan, aldaketa puntuala. "Interes pribatuaren arabera politikak municipalak egitea oso arriskutsua dela uste dugu", adierazi zuten agerraldian. ■ I. Esteban

Zazpi egun San Trokaz jaiak bete-betean gozatzeko

Jaien hasiera iragartzen duen Gervasen atzo iluntzeko kalejiragaz ekin diete Zelaian San Trokaz jaiari. Ohiturak agintzen duenez, txistulariekin eta Abadiño-ko ezpadantzarien azkeneko entsegugaz eman zieten jaiari hasiera.

Datozen egunetan, gaur arratsaldeko Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen emanaldi bikoitzagaz hasi eta maiatzaren 22 arte, egun zein gauetarako deneriko gustu eta adinetakoentzako proposamenak biltzen dituzte Jai Batzordean zein Gaztetxean osatu dituzten egitarauak. Nabarmenezkoak dira Gose, Esne Beltza, Betagarri, Sermond's, Kruder's, Anje Duhalde eta Txomin Artola, besteak beste. ■ I.E

Langile euskaldunen lan-poltsa udalean

Umeen eta adinekoren zaintzaile, eskola partikularrak ematen edo aisialdi eta kirol begirale lanetan jarduteko prest dauden herritar euskaldunekin osatu gura dute udaleko lan-poltsa.

Argi Abad euskara zinegotziaren berbetan, "behin zerrendakosatuta, interesa duten herritarren eta lan-poltsan inskribatutakoaren arteko hartu-emanaren errazteko lana egingo du udalak".

Zerrenda batean edo gehiagotan eman dezakete maiatzaren 20ra arte herritarrek izena: Udal Mediatekan edo Errota kultur etxean eman daiteke izena. Ekainaren 6tik aurrera eskuragarri izango dira zerrendak. ■ I.E

IURRETA

Emakumeen kirola sustatzeko diru-laguntzak

Andreen parte-hartzea sustatzen duten kirol erakundeei zuzendutako diru-laguntza deialdia zabaldu dute hirugarrenez, andreek kirolean jardutea sustatu guran. 2.750 euro bideratuko dituzte eta hilaren 31ra arte egin daiteke eskaria, erregistroan. Honakook hartuko dira aintzat: andreen partaidetza bultzatzeko egitasmo bereziak, proiektuaren interesa eta egokitasuna, ekintzetan parte hartzen duen andre kopurua eta federatutako andre kopurua. Elkarrean erregistroan izena eman behar da eta helbide soziala Iurretan eduki. ■ A.B.

"Lege iruzurra" salatu du ELAk udalaren kontratazioetan

Langileek "euren eskubideak betetzeko eskatu" dutenean kaleratu egin dituztela dio ELAk

Abadiño-ko Udalak kontratuak "lege iruzurra" eginez gauzatzen dituela eta "eskubideak betetzeko eskatzen dutenean langileak kaleratu egiten" dituztela salatu du ELA sindikatuak, ohar batean.

Sindikatu abertzaleak azaldu duenez, 38 langile daude udalean, eta horietatik lau dira finkoak. Iraupen jakineko aldi baterako kontratuak dituzte udaleko gainerako 34 beharginek.

"Aldi baterako kontratatutako langileok finkoak diren postuetan dihardute lanean"

"Aldi baterako kontratatutako langileok finkoak diren postuetan dihardute", ELAk dioenez: "Sei hilabetetik sei hilabetera beste langile batez ordeztzen dute, baina postu berberetan lan egiteko".

Horrela, "dagokion lan-eskaintza publikoaren bitartez postu horietan diharduten langileak lan taldeko behargin finko bihurtzea" ekiditen du sindikatu abertzalearen berbetan udalak.

Langileen Estatutuaren eta epai ugarien arabera, kontratatutako modu hori "lege iruzurra" dela dio ELAk. "Legez kontrako kontratazioen" berri jakinda, "egoera zuzendu beharrean, udalak legea betearazteko eskatu dion langileak kaleratzea" da sindikatua- ren aburuz "larriena". Oposizio-ko alderdiei galdera eginez ixten du oharra: "zer egin behar du oposizioak honen aurrean?".

Alkatearen erantzuna

Sindikatuari erantzunez Navarro alkateak kaleratutako oharak dioenez, "langile horiek udalarentzat lan egiteari utzi diote, lan kontratua bukatu zaielako". ■ I.E.

Zorua berriztu ondoren, zabaldu dute Amilburuko jolasgunea



Amilburuko umeendako jolasgunea zabalik dago berriro, lurzorua berrizteko beharrak amaituta. Oso narriatuta zegoen jolasgune-ko zorua konpontzeko 19.000 euroko inbertsioa egin dute, udal arduradunen azalpenen arabera. Astebete inguruan egon da itxita jolasgunea; maiatzaren 2an hasi ziren beharrak. ■ A.B.

ZURE AUKERAK ZABALDU!!!

Ateak zabalik

Maiatzaren 18an

18:00etatik 20:00etara

Tel.: 94 466 88 00 •
www.iurreta-institutua.net •
014950aa@hezkuntza.net

HAUTESKUNDEAK - DEBATEA

Lau alderdiren ikuspuntua Durangoren etorkizunaz

PSE-EE, Aralar, EB eta Bilduko hautagaiak batu zituen Platerueneko debateak

Anboto antolatu eta Plateruenean gauzatuak debateak, Durangoko etorkizunaz eztabaitzeko batu ziren lau alderditako ordezkariak: PSE-EEko Andoni Unzalu, Aralarreko Dani Maeztu, EBko Alba Gutierrez eta Bilduko Urdaspal Bolinaga. EAJ eta PPko hautagaiak ere gonbidatuta zeuden ziren, baina ez parte

hartzea erabaki zuten: "Hurrengoan alderdi guztietako ordezkariak izatea itxaroten dugu, horrek eztabaida aberastuko lukeelako", dio debatea gidatu zuen Jone Guenetxea. *Anboto*ko zuzendariak. "Platerueneko debateak udal politikagintza herritarrei hurreratzeko" balio izan duela adierazi du, eta eskerrak eman dizkie debatea ber-

tatik bertara jarraitu zutenei zein *livestream* bidezko emisioagaz bat egin zuten guztiei.

Ordu eta erdi inguruko debatean hainbat gai jorratu zituzten. Esaterako, trenaren lurperatzeko lanei eta geltokian libre geratzeko diren lurren kudeaketari buruzko ikuspuntu anitzak plazaratu zituzten. PSE-EEko Unzaluk Eusko-

Jaurlaritza tren lurperatzeko egin ari den inbertsioa defendatu, eta Saha Hadidek diseinatutako Euskotrenen eraikina "gehiegikeriatzat" jo zuen. Trena lurperatzeko lanak atzeratu izana "PSE-EEK bere alderdiko alkatetzei ematen dien lehentasunari" egotzi zion EBko Gutierrezek.

Bildu koalizioako Urdaspal Bolinagaren ustez, eremu hura zelan kudeatu erabakitzeko "lehenengo azterketa soziodemografioa egin behar da; horrek erakutsiko digu benetan zer behar den". Aralarreko hautagai Dani Maeztuk, berriz, Euskotrenen egoitza zein ekipamendu bat izan, "zerbitzuen beharra" adierazi zuen.

Debatea Hamaika TBN

Etxebizitza politikari, euskarari eta mugikortasunari buruz ere berba egin zuten eztabaidan. Hamaika telebistak gaur, 22:40an, debatea osorik emitituko du, eta datorren astean www.anboto.org-en ere ikusi ahalko da, gaien arabera atalatan banatuta. ■ J.Derteano

ADIERAZPENAK

☞ Saha Hadiden proiektua gehiegikeria da; amaitu da udalek dirua xahutzea ☞

Andoni Unzalu - PSE-EE

☞ Aurreikusitako inbertsioen %30 bakarrik gauzatu du gobernu taldeak ☞

Dani Maeztu - Aralar

☞ Herri ongizatea bermatzen duten erabaki gehiago hartu behar lirateke ☞

Alba Gutierrez - EB

☞ Herriak benetan dituen beharrianak jakiteko azterketa bat egin behar da ☞

Urdaspal Bolinaga - BILDU



Urdaspal Bolinaga (Bildu), Alba Gutierrez (EB), Jone Guenetxea (Anboto), Andoni Unzalu (PSE-EE) eta Dani maeztu (Aralar). K.A.

HAUTESKUNDEAK - KANPAINA



Ekitaldia egingo du EAJk, igandean, Batzokiaren aurrean



EAJko taldea merkatu plazan izan zen joan zen asteburuan erostetako poltsa erabilgarriak banatzen, eta baita umeentzako globoak eta gozokiak ere. Astelehenan Ezkurdin egin zuten ekitaldia, eta hantxe izan zen Iñigo Urkullu Euzkadi buru batzarrekopresidentea ere, besteak beste, Durangaldeko EAJri babesa ematen. Eguenerako aurreikusitako ekitaldiak bertan behera utzi zituzten Murtzia-

ko lurrikaran kaltetutakoen eta hildakoen omenez.

Larunbat honetan EAJk puzgarriak jarriko ditu Ezkurdin; euria egiten badu Andra Mariko elizpean. Igandean, 12:30ean, Durangoko Batzokiaren aurrean Aitziber Irigorasek jendeagaz batera egoteko aukera izango du. Bertara hurbilduko direnek gazta eta txakolina dastatu ahal izango dute. ■ J.D.

PSE-EE
PSOE

Ekonomia, lana eta formazioa sustatzeko saila sortu gura dute



Iñaki Egaña Batzar Nagusietarako hautagaiagaz batera egindako prentsaurrekoan, Durangoko PSE-EEK bere proposamenak aurkeztu ditu.

Pilar Rios zerrendaburuak azaldu du Ekonomia, Enplegu eta Formazio Saila sortu gura lukeela PSE-EEK.

Etxebizitzetara dagokienez, babes ofizialeko alokairua bultzatuko duela esan du Riosek. Uribarriko egoitza egon zen

lekuan pertsona nagusientzako apartamentuak ipintzea da beste proposamenetako bat: "apartamentuez gainera, jantokia lako zerbitzuak eskaini gura genituzke egoitza egon zen lekuan".

Kirolene ikastetxea Tabirako kirol azpiegiturretara pasatzea proposatu du PSE-EEK. "Hirigintza gastuak garestitu ez daitezten", Ekintza Protokoloaren premia nabarmendu du Riosek. ■ A.U.



Hautagaiak eta proposamenak aurkezten, herririk herri



Bildu koalizioak hainbat aurkezpen egin du azkeneko egunotan Durangaldean. Durangon, eguaztenean agerraldia egin zuten Tabiran, bertan Kiro-leneren egoitza berria, berdegune bat eta zabugune bat egitea proposatu dutelako.

Elorrion, barikuan aurkeztu zuten zerrenda, eta domeka honetarako bazkaria eta mitina prestatu dituzte, 14:30ean eta 19:30ean, hurrenez hurren. Abadiñon martitzenean batu ziren hautagaiak, 250 lagun

aurrean. Besteak beste, “lehen eta bigarren mailako auzoen kontzeptuari amaiera eman eta herriaren kohesioan sakontzea” gura dute. Atxondon, “ezkerreko ikuspegi abertzale batez jarraitzeko” asmoa agertu dute. Iurretan, barikuan aurkezpene egin zuten eta gaur programa azalduko dute. Mañariko zerrenda “prestakuntza eta ilusio handikoa” dela diote Bildukoek. Otxandion gaur dute ekitaldia. Berrizen bazkaltzeko batu ziren zapatuan. ■ M.O.



Azpiegiturak eta etxebizitza politika, kanpaina abiatzeko



“Durango sozialki kohesionatzeko eta zerbitzu hiri izan dadin” proposatuz abiatu du kanpaina Aralarrek. Azpiegiturei dagokionez, trenbidea lurperatu ondoren, Jaurilaritzak hasieran Euskotrenen egoitza aurreikusizuen orubean, “txiki” geratu den Kiro-leneren eraikin berria egitea proposatu du Dani Maeztu alkategaiak: “Kosterik ez luke izango, egingo diren etxebizitza dorre eta babesekoengatik Jaurilaritzaren dirua jasoko du-eta Udalak”.

Etxebizitza arloan, Etxebiden izena emanda 1.198 durangar daudela azaldu du Maeztuk. Babeseko etxebizitzak eraikitzeko “politika orokorrak” gartzea proposatu dute, “alokariari lehentasuna eman eta jabetzakoak ere eskainiz”. Gazteentzat etxebizitza dotazionalak ere proposatu ditu Aralarrek, Arripausuetan eraikitzeko: “Apartamentu txikiak lirateke, eta hainbat instalazio eta zerbitzu denek erabiltzeko edukiko lituzkete”. ■ A.B.

Abadiñoko Independententeen mitina hilaren 20an, barikuan

Asteon ekimenik egin ez badutere, datorren asterako ekimen bi prestatu ditu Abadiñoko Independententeak taldeak Jose Luis Navarrok jakinarazi duenez.

Alde batetik, datorren egunean, maiatzaren 18an 19:00 inguruan, parrillada baten inguruan batuko dira Muntzaratzen. Hurrengo egunean, berriz, mitina eskainiko dute Traña-Matie-nako Traña plazan.

Jose Luis Navarrok boto eraginkorraren aldeko mezua zabaldu du. 2007an 52 botoko aldearekin bakarrik irabazi zutela gogoratu du: “Beste edozein herritan baino balio handiagoa izan dezake boto batek” ■ J.D.

Hasitako lanari jarraipena eman gura dio Herriko Taldeak

Garaiko Herriko Taldeak argazkia aterako du asteburu honetan, bere hautagai guztiak batuz. Gontzal Sarrigoitia, gaur egungo alkatea, izango du berriz ere zerrendaburu Herriko Taldeak.

Duela lau urte hartutako alkatetza mantentzea da hauteskundeotako helburua. Azaldu digutenez, “urteotan hasitako lanari jarraipena ematea” izango da euren asmoa.

Aurrera begirako proposamenei dagokienez, Sarrigoitiak azpimarratu du “herrian sortzen diren beharren arabera-koak” izango direla; herrian interneteko wi-fi sistema jartzea gura dute, esaterako. ■ M.O.



‘Zure aukera’ lemagaz hasi du kanpaina Alderdi Popularrak



Durangoko PPk orain arteko politika “kontinista eta eraginkortasun bakoaren alternatiba” izan gura duela azaldu du kanpaina hasieran. Juanjo Gaztañazatorrerentzat lehentasuna daukate Tabira eta Sabecoko biribilgunea lotzeak, babeseko etxebizitza gehiago eraikitzeak eta enplegua sustatzeak.

Kanpainaren hasierahonetan, Bizkaian, besteak beste, Bilbon, Getxon eta Barakaldon burutu ditu Alderdi Popularrak ekitaldi publikoak: ahal

nagusi izateko alderdi horren hautagai den Esther Martinezek, esaterako, Bilboko “merkataritza biziberritzeko” beharraz jardun du Erzilla kalean buruturiko mitin batean.

Zure aukera lema aukeratu du maiatzaren 22ko Udala eta Foru hauteskundeetara begira, Bizkaiko Alderdi Popularrak. Programan jaso dutenez, “udaletatik aukera ekonomikoak sortu eta berauetatik herriarentzako etekin soziala ateratzea” dute helburu. ■ I.E.



Langabeziari aurre egiteko beharra nabarmendu du EBk



Durango, Iurreta eta Abadiñoko Ezker Batuko hautagaiek hurrengo legegintzaldirako proposamenak zabaltzearekin diote asteon. Hautagai zerrendak aurkeztu dituzten herrietan programak banatzen aritu dira zerrendaburuak; Alba Gutierrez Durangon, Jose Luis Zubillaga Iurretan eta Jose Luis Perez “Perucho” Abadiñon.

*Ezker Batua-Berdeak*ekin geratzen naiz da maiatzaren 22ko hauteskundeetarako alderdiak aukeratu duen leloa. Gaur

egungo langabezia mailari aurre egiteko neurriak proposatzeaz gainera, bestelakoak ere badira. Durangoko zerrendaburu den Alba Gutierrezek, adibidez, berdintasuna bultzatzea izan du hizpide; horretarako, hezkuntza bide horretan kokatzeko beharra azpimarratu dute programan. Zubillagak, ostera, iurretarren parte-hartzea sustatuko duten proposamenak aurkeztu ditu. Perezek, berriz, Abadiñoko eguneko zentroa proposatu du, besteak beste. ■ A.M.

Elorrion Eskubeteuli aurkeztuko da lehenengoz

Herritar talde batek, EHA plataformako kide batzuek eta Ezker Batua-Berdeak-ek koalizio berria sortu dute datozen hauteskundeetarako: Eskubeteuli-SQ2. “Herriarren beharrak eta nahiak batzuetan baztertuak” izaten direla-eta, euren lehenengo helburua “administrazioarekin harremanak erraztea” izango dela azaldu dute.

Emili Cadiñanos da Eskubeteuli alderdi berriko zerrendaburu. Euren aurkezpenean azaldu dutenez, “indarrak batzearen” egin dute koalizioa, eta beste alderdiekin elkarlanean jarduteko prestutasuna agertu dute. ■ A.U.

m22 bozkatu

bildudurangaldea bildueuskalherria



bilduiurreta



bilduabadiño



bildudurango



BERBAZ >

“Hamasei urte egin ditut herrigintzan, eta oraindik aurrera ere lanean jarraituko dut”

Legegintzaldiko lorpen handienak Hirigintza Plana, Auzo Kontseilua sortzea eta Ondare Ibilbidea izan dira Niko Morenoren ustez: “Zailtasunak zailtasun, Ezker Abertzaleak Elorrio gobernatzen jakin duela erakutsi du”

Ekainaren 10ean alkatetza utziko du, eta ezingo du berriro politika instituzionalean jardun. Hala eta guztiz, herrigintzan ibiltzeko gogoia agertu du Niko Morenok. Batera edo bestera, udaletxe inguruan hamasei urte daramatzala nabarmendu du, eta maite duela egin duen beharra.

Legegintzaldia amaitzear dago. Zelakoa izan da?

Nire ustez, udalak eta herriak berak dezente egin dute aurrera. Pozik nago, batez ere, Hirigintza Plana onartu dugulako; kostata, baina egin dugu. ANVren ilegalizazioak legegintzaldia markatu du, baina uste dut Ezker Abertzaleak Elorrio gobernatzeko gaitasuna erakutsi duela, zailtasunak zailtasun.

Hirigintza planaren barruan, herriar batzuketarrezeloa izan dute San Antongo birkalifikazioengatik. Zelan baloratzen duzu gertatutakoa?

Egon daitezke poligonoaren kontrako eta aldeko iritziak, eta baita industrigunearen tamainari buruzko eztabaidak, baina San Antongo poligonoaren kontra oso modu zikinean egin dute oposizioa. Esan dute *pelotazoa* egon dela, interesak ditudala, jendea engainatu dudala... Nik ez dut inoiz esan industriagunea ez zenik egingo; esan dudana da Hirigintza Plana ezin zela egin aurreko legegintzaldian planteatu zuten moduan. Talde teknikoek ere lana egin dute hor, eta ez daukat zalantzarik; erabakia zuzena, legezkoa eta garbia da.

Parte-hartze prozesua ipini zenuten martxan.

Denon Artean egitasmoko partaideek pista batzuk eman zizkiguten planean kontutan hartzeko. Denen desioak ez dira ehuneko ehunean bertan jasota egongo; nire desio guztiak ere ez; denok eman behar izan dugu zer edo zer, kontsentsualortzeko. Herriarren iritziak pisua dauka, baina jende arruntak kontutan hartzen ez dituen osagai ekonomiko, tekniko eta politikoak daude; denak hartu behar dira kontutan. Argiñetaren kasuan, Hiri Debekeatuen Mapagaz ere parte-hartze prozesuak egon dira eta oso aberasgarria izan da.



“San Antongo poligonoaren kontra oposizio zikina egin dute; erabakia zuzena, legezkoa eta garbia izan da”

Legegintzaldi honetako berrikuntzetako bat Auzo Kontseilua izan da.

Datorren legegintzaldian egonkortu beharreko organua da. Oso garrantzitsua da auzoek gaitasuna edukitzea euren errealitatean eragiteko. Beste auzoetakoengandik ikasteko aukera ere ematen du kontseiluak. Beharbada, hasieran auzoetatik gauzak arin aldatuko zirela pentsatzen zuten, baina orain ikusten dute auzo bakoitzak bere arazoak dituela, eta lan erritmoak ezagu-

tzen hasi dira. Orain arte arazo amakomunak konpontzen ahalagindu gara: zabor bilketa normalizatu da, bideen garbiketa ere bai, auzo taxiak martxan ipintzekotan gaude... Denbora aurrera joan ahala auzo bakoitzeko arazoak lantzen hasi beharko da kontseilua.

Ondare Ibilbidea ere garatu duzue. Zelako harrera izan du?

Agenda 21eko foroan, Denon Artean prozesuan... beti agertu da Elorriok turismorako aukerak

Niko Moreno •

Elorrioko alkatea

■ 48 urte ditu

■ Alkate izan da Elorrioan 1999tik 2003ra eta azken legegintzaldian, Ezker Abertzaletik

“Somatzen dudan ilusioak esaten dit Ezker Abertzaleak bete-betean asmatu duela bere planteamentuetan”

dituela. Ondare Ibilbidea kanpotarrei zein elorriarrei eskaintzeko lehenengo turismo produktua izan da. Argiñetakoa izango da bigarrena. Natura ere gure baloreetako bat da; bagabiltza Naturbidea eta GR Mikeldi lako egitasmoak garatzen.

Ingurumenari helduta, AHTaren kontrako jarrera izan du gobernu taldeak. Proiektua aurrera doa. Udalak zeregin dezake orain?

Estrategikoa zela eta, bedekapen guztiak izan ditu AHTak. Ez dakigu krisiak zerpunturaino eragin dezakeen, baina badirudilana aurrera doazela. Urteotan Jaurilaritzako eta Adifeko arduradunek ez dute gurekin hartu-emanik eduki gura izan, sarri eskatu izan diegun arren. Uste dut, zoritxarrez, obrak amaitzerakoan ikusiko dela kontrako jarrerak arrazoia zeukatela. Ahal izan den guztia egin dugu, baina hartu duten dinamika guztiz gure ginetik dago.

Epe laburrean zer egitasmo garatu beharko lirateke herrian?

Mugikortasun arloan, gasolindegitik Ibarrara, Ibarratik Kuruizondora eta handik Nizeto Urki zurako bidea egitea funtsezkoa izango da; kanpotik datorrenak kanpora joateko ez du herri barrutik pasatu beharko, eta alde zaharraren eboluziorako oso garrantzitsua izango da. Babeseko etxebizitzetxe ere heldu beharko zaie. San Antonen 55 etxebizitzetza sozial aurreikusi ditugu hirigintza planean, eta funtsezkoak izango dira etxebizitzetza eskaerari erantzun eta auzoari orain arte

eduki ez duen indar urbanistikoa emateko.

Ezingo duzu udalean berriro egon. Herrigintzan jardungo duzu?

Nire gainean ez dago ezelako zigorrik, ez dago sententziarik, baina beste 40.000 euskal herritarren moduan, ezingo dut politika instituzionalean ibili. Hamasei urte daroztat herrigintzan, eta nire bidelagunek badakite prest nagoela lanean jarraitzeko. Maite dut herri hau, maite dut egindako lana eta oso inplikaturat sentitzen naiz Ezker Abertzalearen eta oraingo proiektu politiko berriaren ibilbideagaz.

Zer ondorio atera daiteke Ezker Abertzaleak hileotan bizi izan duen guztitik?

Uste dut Ezker Abertzaleak *Zutik Euskal Herria* egitasmoko planteamentuetan bete-betean asmatu zuela. Momentu honetan somatzen den ilusioak hori esaten dit: herri honetan gehien-go bat dago aldaketaren alde, eta estrategia aldatu eta konfrontazio demokratikora jo behar dugu, indar metaketa eta kaleko mobilizazioekin. Alderdi batzuk ez dute planteamentu gordinik egin independentziaren alde, eta, nire ustez, Bilduk jende askorentzako bidea zabaltu du. Bide horretan ahal den guztia egin behar dugu modu natural eta demokratiko batean. Beharbada, independentzia uste baino gertuago dago. ■ A. Ugalde

KULTURA[>]

MUSIKA > EMANALDIA

‘Musikazuzenean.com’ aurkezteko jaialdi akustikoa Arriolan

Orain urtebete Donostian aurkeztu zuten www.musikazuzenean.com proiektuaren Bizkaiko aurkezpena da maiatzaren 15eko Elorrioko Arriolako jaialdiagaz burutuko dutena. Hamaika proposamen musikal izango dira domekako jaialdi akustikoan, musikari buruzko webgunea ezagutzera emateko

Euskal Herriko eszenatoki handi zein txikiagoetan astebururo entzungai izaten diren zuzeneko musika emanaldien “ispilu eta bozgorailu izateko helburuarekin” sortu dute www.musikazuzenean.com.

Webgunearen inguruko lagun musikariek in osatu dute kartela

Webgunearen sortzaileek azaldu digutenez, 2010eko urrian abiatutako eta Donostiako DOKA aretoan aurkezturiko proiektua Bizkaian ezagutzera emateko antolatu dute maiatzaren 15eko Elorrioko Arriolako jaialdi berezia. “Kultur eskaintza zabala daukan herria delako” aukeratu omen dute antolatzaileek Elorrio Bizkaiko auzpea egiteko.

Domekakoa, baina, ez da ohiko kontzertua izango; astebururo Euskal Herriko taberna eta areto

txikietan formatu txikiko zuzenekoak eskaintzen dituzten bakarlari eta taldeen topaketa lege antolatu dute. Jaialdi akustikoa da burutuko dutena, antolatzaileen berbetan, “webgunearen inguruan izan ditugun musikari lagunekin osaturiko” eskaintzagaz. Hamaika musika proposamen dira Arriolara dakartzatenak.

Hamaika musika proposamen ekarriko dute domekan Arriolara

Gitarra elektrikoa, ahotsa eta danbor bat lagun hartuta jardungo duen Joseba Irazoki; azken urteotan eszenatokietatik aparte egon den Morau; 2010ean kalera-tutako diskoko kanta elektrikoak “biluzik eskaintzera” datorren Jon & Sugramas; txeloa tresna nagusi duen Mursego; hainbat kolaboratzaileguz eta gitarrak lagunduta jardungo duen Anari; hainbat musikariren laguntzagaz jardungo duen Sorkun; 1997tik bakarka dihar-

duen Petti; ingelesezko kanta “biluziak” dakartzan Mery May; areto txikietan eta tabernetan jotzera ohituta dagoen Moby Dick; Irlandan bira burutu ondoren datorren Azkater Pelox; eta Etsaiak eta Uek taldeetan jardun ondoren 2000tik bakarka diharduen Keu Agirretxea dira maiatzaren 15eko Elorrioko jaialdian parte hartzera datozen musikaetako batzuk.

Musikari bakoitzak 10 minutuko zuzeneko saioa eskainiko du

“Eszena esanguratsu eta biziki interesgarriaren” erakusle diren hamaika musikarigaz osatu dute jaialdia, azpimarratu dutenez. Emanaldi berezia eta errepikaezina izango dela aurreratu dute antolatzaileek: musikari bakoitzak 10 minutuko tartea izango du bere musika egitasmoa taularatzeko. Kartelak jasotzen dituen musikariek gainera, gonbidatuak ere izango dira oholtzan: gau berezi horretarako lankidetzaz bereziak.

Sarrerak Elorrioko Parra tabernan eta Durangoko Kale Kantoi tabernan eskuratu daitezke. Anboto astekariaren www.anboto.org webgunean, gainera, bost sarrera zozkatuko ditugu. ■ I. Esteban



MUSIKARIAK

Moby Dick

Joseba Irazoki

Keu Agirretxea

Anari

Mursego

Jon & Sugramas

Sorkun

Azkater Pelox

Mery May

Morau

Petti



ARKEOLOGIA ETA HISTORIA > BERBALDIA

Gizakiaren jatorriari buruzko hiru hitzaldi Kurutzesantu Museoan

Atzo izan zen zikloaren lehenengo hitzordua, eta datozen eguen bietan ere 19:00etan izango dira berbaldiak

Hominizazio-prozesua hartuko dute Durangoko arkeologiari eta historiari buruzko jardunaldien bigarren edizio honetan berbagai. Kurutzesantu Museoan, maiatzaren 12an, 19an eta 26an, 19:00etan, izango dira gizakiaren jatorriari buruzko hiru hitzaldiak.

Gaur egungo ikerketa eta eztabaida zientifikoan oso presente dauden galderak

Gizateriaren bilakaera aztertuko dute arkeologia eta historiari buruzko hiru hitzaldietan

aztertuko dituzte berbaldietan. Arkeologia eta historia jardunaldien antolatzaileen berbetan, "garai eta kultura guztietan gizakiak gehien kezkatu dituen enigmatiko bat" da gizateriaren bilakaerari buruzkoa.

Javier Fernandez Eraso EHUKo katedradunaren atzoko hitzaldiak zabaldu du zikloa. Datorren egunean, *Los neandertales, unos parientes lejanos* gaia hartuta, "ikerlariak txunditzen dituen espezieari, neandertalei buruz dauzkagun ezagupen berriak" azalduko ditu Alvaro Arrizabalaga EHUKo irakasleak. Maiatzaren 19an, 19:00etan, Kurutzesantu Museoan izango da jardunaldiaren bigarren hitzordu hori.

Berbaldi zikloa ixteko, maiatzaren 26rako hitzartu dute Joxean Mujika Alustiza EHUKo irakasleak euskaraz eskainiko duen saioa: *Homo sapiens sapiens-a: bere ingurunea, ekonomia eta adierazpen kulturalak* izenburuko hitzaldia izango da zikloa itxiko duena. ■ I.E.

BERBALDIAK

Maiatzak 19, 19:00
Durangoko Kurutzesantu Museoan

Los neandertales, unos parientes lejanos izeneko berbaldia eskainiko du Alvaro Arrizabalaga EHUKo irakasleak

Maiatzak 26, 19:00
Durangoko Kurutzesantu Museoan

Homo sapiens sapiens-a: bere ingurunea, ekonomia eta adierazpen kulturalak izeneko berbaldia eskainiko du Joxean Mujika Alustiza EHUKo irakasleak

ERAKUSKETA > PINTURA

Alvaro Gil Corellako gazteak jaso zuen lehenengo saria eta Karlos Berrizbeitiak herrikoa

Karlos Berrizbeitiaren 'Betiera' koadroa hautatu zuen epaimahaiak herriko onentzat; 25 margolarik hartu zuten zapatuko pintura lehiaketan parte

Goizean zehar, tarteka euria ere lagun izan zuten arren, 25 margolari hurreratu ziren zapatuan Berrizko XII. Pintura Lehiaketan parte hartzera. Hautatutako herriko gunea margozteko aterpe aproposa bilatu eta eguerdira arte jardun zuten lehiaketara aur-

Corella, Donostia eta Gasteizera joan ziren pintura lehiaketako lehenengo hiru sariak

keztuko zuten margolana osatu eta prestatzen parte hartzera etorritakoek.

Alvaro Gil Soldevilla Corellako gazteak jaso zuen lehiaketako lehenengo saria: *Berriz desde el aparcamiento* izeneko margolan koloretsua burutu zuen Gilek zapatu goizean zehar, eta berari eman zion sari nagusia epaimahaiak.

Juan Berrozpe donostiarrak jaso zuen zapatuan banatu zuten Berrizko XII. Pintura Lehiaketako bigarren saria, eta Eduardo Alsasua gasteiztarrek hirugarrena.

Berrizko Kultur Etxeko sarreran daude zapatuko lehiaketara aurkezturiko lanak, maiatzaren 16 arte ikusgai. Berriztar batek eginiko koadrorik onenaren saria jaso zuen Karlos Berrizbeitiaren *Betiera* lana ere tartean da, erakusketan. ■ I.E.

Zapatuan osatu eta lehiaketara aurkezturiko lanak erakusketan daude maiatzaren 16ra arte

Tarteka euria ere egin zuen arren, 25 lagunek hartu zuten parte zapatuko hitzorduan



GEURE DURANGALDEA



Miren Amuriza
Bertsolaria

Kultura be bai

Ehunka urte daroagu herri txiki honetan gauza handiak egiten. Gaztelako koroaren aurrean Nafarroako Erresuma eraiki genduen. Mende batzuk geroago, bandera errepublikarra zabaldu Eibarko plazan. Handik lasterrera kendu eben, baina, gu, oster a be fusilak lepoan hartu eta gudara abiatu ginen Bizkargi eta Intxortako aldatzetan gora.

Otxandion eta Durangon bonbardatu egin ginduezen; Elorrioren euskaraz berba egitea debekatu; Zadibarren Francoren argazkiari begira *Cara al Sol* kantatzera behartu. Eta holan herri guztietan. Baina guk ikurrinak eskegitzen jarraitu genduen.

Harrezkero, ehunka lagun eroan deuskue kaiolara, egunkariak itxi, alderdi politiko eta eragileak legez kanpo itzi. Baina guk kartelak jartzen jarraitu dogu; milaka eta milaka lagun manifestaldietara eroatan, herri-bazkariak eta jaialdiak antolatzen...

Oso ondo; oso ondo dago hau guzti hau. Baina bien bitartean gure herrietako antzerki aretoak aulki hutsez bete dira sarritan; lantzean behin libururen bat irakurtzeari itzi deusagu; Zuberoako maskarada bat inoiz ikusi ez dogun arren, denok egon gara talde espainiar edo amerikarren batzuen makro-kontzertuetan...

Gauza handiak egin doguz benetan herri txiki honetan. Halan be, gure sormena, ilusioa eta indarra erresistentziarako erabili behar izan doguz nagusiki.

Ate barriak zabaltzear dagozen garaiotan, izan daigula, herriz herri, kultura be indartzeko kontzientzia sendoagoa.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



MAIATZAK 13 22:00etan
NACHO VEGAS + REFEE
KONTZERTUA. Sarrera: 12-16euro.

MAIATZAK 14 22:00etan
ANGELIC UPSTARS + THE DIRTY BROTHERS + BASTARDS ON PARADE
KONTZERTUA. Sarrera: 13-15euro.

MAIATZAK 19-26 20:00etan
DF BERTSOZALE ESKOLA 2011
BERTSOALDI KOMENTATUAK.

MAIATZAK 20 22:00etan
STREET DOGS + THE MAHONES
+ FIACHRAS. Sarrera: 14-18euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



Bazkideentzako doan:
- Maiatzak 14 (helduentzako)
- Maiatzak 15 (umeentzako)

San Agustin
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA



PLECS

Enfila't (Cataluña)
Maiatzak 14 • 20:00

AZKEN PORTUA


Dejabu Panpin Laborategia
Maiatzak 15 • 18:00



artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

Deko

2011



KOART 2011

Sukaldeak • Bainugelak • Horma-armairuak

Tel. / Faxe: 94 682 68 79
Eitua industrialdea, 9 - 6 behea
48240 BERRIZ



Dekorazioa: estetikoa eta funtzionala

Krisi garaian murgilduta gaudenez, aurtengo joeretan garrantzi handia hartuko du birziklatzea oinarri duen dekorazio estiloak

Izaera futurista eman diezaiokegu dekorazioari; estiloen nahasketa da beste aukera bat: portugaldarra, frantziarra...

Dekorazioak bi ezaugarri izan behar ditu: estetikoa eta funtzionala izatea. Aukera zabala dagoen arren, adituek esan digutenez, arriskatzeko ohitura gutxi dago. Hori dela-eta, aurtengo joeretan bi koloreko konbinazioak ikusiko dira orokorrean. Kolore biziak gehigarrietarako geratuko dira; sofaren kuxinetarako, esaterako.

Bestalde, izaera futurista ere eman diezaiokegu dekorazioari, etxe modernoak gura izanez gero. Estiloen nahasketa da beste aukera bat: portugaldarra, frantziarra...

Harria eta zura erabiliz, oster, naturagaz lotutako dekorazioa lortu genezake.



Krisi garairako

Krisi garaian gaudenez, inoiz baino garrantzi handiagoa hartuko du birziklatzeak. Objektu zaharrek egindako apaingarriak, erabiltzen ez dugun baxeragaz prestatutako lorontziak... Aukera zabala dago, beti ere irudimenari buelta batzuk emanez gero.



JAZZINTERIORISMO

- BARNE-ARKITEKTURA
- LOKALAK LEGEZTATZEA
- EKIPAMENDUA (AHOLKULARITZA ETA ALTZARI HORNITZEA)
- SEINALETIKA
- ESPAZIOEN EGOKITZAPENA PERTSONA NAGUSI ETA MENDEKOENTZAT
- ELKARLANA ERAIKUNTZA ENPRESEKIN PISU PILOTUAK HORNITZEKO

WWW.JAZZINTERIORISMO.COM



LEHEN



ORAIN




LEHEN



ORAIN

LANDAKO ETORBIDEA, 4 • ELKARTEGIA ERAIKINA • 101 MODULUA • DURANGO
TEL.: 695 760 562 • 695 760 564 • 94 621 59 64



Erosleak sofa erosteari denbora eskaintzen diote; inbertitzeko prest daude sofa berriak erosotasuna bermatzen badu

Erosotasunak ez dauka preziorik

Biribil erako sofak gero eta gehiago saltzen dira; egongela estetikoki jantzi egiten dute


Egongela deskantsura bideratutako etxeko gunea da; lotara joan aurretik burua eta gorputza erlaxatzeko erabiltzen den gela. Hori horrela izan dadin, erosotasuna ezinbestekoa da, eta egongela altzariz jantzeko orduan hori hartzen da jarraibide moduan. Erosleek sofa erosteari denbora eskaintzen diote, eta normalean ez zaie horretan inbertitzea ardura, urteetarako erosotasuna bermatzen badu.

Chaise longue estiloko sofek modan jarraitzen dute. Normalean, egongelaren egiturak ahalbidetzen badu, pieza bakarrekoak beharrezko biribil formakoak aukeratzen dira; zelanbait

esatearren, egongela besarkatzen duten horietakoak. Koloreari dagokionez, kolore neutroak baina bistarako samurrak direnak ikusten dira gehien: gris eta zuri koloreak edo lur eta moka koloreak, esaterako.

Altzariei dagokionez, orain arte azalera leun eta distiratsuak aukeratzen baziren, aurtur zur gaineko laka estilozko joera dago, altzariek izaera desberdin eta berezia hartzen dutelarik. Italiatik datorren tendentzia da hori. Teknologia berriek ere eragin dute egongelen egituraren. Telebistak jartzeko altzariak desagertzera doaz, telebista lauak direla aprobetxatuz, askok hormari lotuta ipintzen dituelako

Altzariak Dekorazioa



maderlan

Ezkutuko oheak, jolasteko gelak

Armairu gainean, barruan, literetan, horma ondoan tolestuta... ohe mota asko dago umeen logeletarako. Helburua espazio librea uztea da.

Mota askotako literak edo kabi-oheak daude merkatuan: altzariekin geroago eta gehiago jokatzen da, eta armairu gainean ere ohe bat jartzeko lekua egon daiteke. Bi eta hiru ohe ere ipini daitezke horrelako ohedun altzariekin.



Armairu barruan sartzen diren oheak ere badaude salgai, eta horma ondoan tolestuta armairuak baino altura txikiagoan geratzen diren oheak ere bai.

Altzarietako dagokionez, Alki dekorazio dendako Mertxe Elkorobarrutiak esan digu margotuak edo tramadunak eskaintzen dituztela umeen geletarako. Jendeak zur kolorea aukeratzen du, kutxaren bati kolore ukitua emanda. Hala ere, kolore neutroak erabiltzen dira gehienbat, umeak hazten direnean ere altzariak hor jarraituko dutelako. Kolore biziak jolasteko alfonbrak, hormak eta ohe estalkiak erabiltzen dira.

Hormei dagokionez, lila eta pista-txo kolorez margoztea aukeratzen dute askok. Paperagaz eta pinturagaz jokatzeak ohitura dago: horma bat paperagaz ipini eta gero paper horretako koloreak erabiltzen dira beste hormak margozteko. Biniloak ere itsatsi daitezke, irudi koloretsuekin.



Gelei kolorea emateko pistatxoa eta lila asko erabiltzen dira. Hormetan itsasteko biniloak ere badaude.



gandarias
ALTZARIAK

Ermodo Kalea, Ermodo Kalea 15 eta 25
Arkotxa Kalea 13
Tel.: 94 681 07 22
48200 Durango • Bizkaia



SOLOZABAL
DEKORAZIOA

URARKA, 14-15 • 94 682 03 92 • ELORRIO (BIZKAIA)



Argitasun eta espazio bila logeletan

Nagusien logeletarako kolore argiko altzariak daude merkatuan. Hormak kolore argiz margozteko joera dago, eta paperagaz eta margoekin jokatzeko da geroago eta gehiago.

Logela erosoak argia eta zabala izan behar duela-eta, altzari dendetan altzari zuriak eta zur kolorekoak daude, batez ere. Lehen gris kolorekoak ere ugariak ziren, baina orain intxaurrondo eta haritz koloreko altzariak egiten dabiltzala azaldu digu Solozabal dekorazio dendako Itziar Solozabalek. Errauts kolorekoak, ordea, desagertzen dabiltza.

Armairu handi-handirik ez da beharko logela askotan; izan ere, ohe mota bereziak daude merkatuan, koltxoia altxatu eta bertan gauzak sartzeko aukera ematen dutenak. Ohepean armairu bat izatea legez da. Geroago eta txikiagoak izan ohi dira gaur egungo etxebizitzak, eta jende askok hartzen ditu

horrelako oheak. Koltxoietan azkena teknologia biskoelastikoa da, eta fibra berezi batzuekin egindako materialari esker gorputz osoak atsedean hartzen du: lo egin ezinik dabilenari asko laguntzen dio.

Hormak margotzeko askok berenjena eta zilar kolorea aukeratzen dute. Horma baten papera ipini eta gero, hormak paper horretako kolorearen bategaz margotzeko joera nabarmentzekoa da. Sabaietan papera ipintzeko joera ere badago: kolore argiko tramadun papera ipintzen du jendeak sabaian, eta gero, hormak paper horretako kolorearen bategaz margotu. Lila gamako eta lur koloreko alfonbrak asko saltzen dira: alfonbra iletzu eta distiratsuak.



Logelarako armairu berri bat koltxoi azpian egon daiteke: Ohepean gauzak sartzeko aukera ematen duten ohe ugari dago.




**Berriztatze
proiektu
integralak**

ALRI
decoración de interiores

mikeldi 6, 48200 Durango
Tel: 94 681 38 95

Norbere gustuko armairu pertsonalizatuak

Horma-armairuetan inprimatu fotografikoak gero eta gehiago ikusten dira; norberak gura duen argazkia eroan eta huraxe inprimatu daiteke armairuko ateetan



Sukaldeen eta komunen diseinuan aditua den Taket dendak bere eragin esparrua zabaldu du eta etxebizitza osorako altzariak eta dekorazio proiektuak ere lantzen ditu. Oro har, egongeletan zein logeletan ipini daitezkeen altzariak ikusi daitezke erakuslehioan. Egongeletan altzari zuzenak eramaten dira eta zuriz lakatutako armairuak aproposak dira argiak eta goxoak direlako.

Horma-armairuak

Logeletarako, aldiz, horman sartutako armairuak eskaintzen dituzte. Mota horietako armairuetan kanpotik ikusten den egitura bakarra atea denez, horiek inprimatu fotografikoekin apaintzeko joera asko zabaldu da. Horrela, armairu pertsonalizatuak sortzen dira, norbere gustukoak. Dendetan inprimatuak izan daitezkeen hainbat argazki edo irudigaz osatutako bilduma izaten dute, baina gura duenak bere gustuko argazkia eraman eta armairuko atean huraxe inprimatzea eskatu dezake.



Melaminazko sukaldeak

Sukaldeetan melamina materiala gero eta gehiago erabili eta eskatzen ei da. Estratifikatutako materiala baino merkeagoa da eta kalitate ona mantentzen du. Hala ere, sukaldeetako altzairuak barrutik antzekoak omen dira; azala aldatzen da, baina ez egitura. Hori horrela izanda, diseinuak garrantzia handia hartzen du, horrexek eskaini baitezake ezaugarri bereizgarria.



TAKET deko



Sukalde eta etxeko altzariak

- Bertako fabrikazioa
- **febal** italiar sukaldeen ordezkaria



San Miguel 16 • Tel./Faxa: 94 673 45 83 • ZORNOTZA
Olleria 3 • Tel.: 94 620 15 16 • Faxa: 94 620 13 99 • DURANGO

Milan: 50 urte tendentziak sortzen

Altzariei buruzko nazioarteko azokarik garrantzitsuena tendentzien erakusleihu izaten da



Zuraren gainean laka emateak modan jarraitzen du; koloreei dagokionez, kolore naturalak nagusituko dira besteen gainera

Apirilaren erdialdean altzarien gaineko Milango azoka ezaguna egin zuten, eta bertan izan ziren Ertarte ordezkariek. Milango azokak tendentziak markatzen ditu eta sektoreko enpresa garrantzitsuenek bertan erakusten dituzte nobedadeak. Egongeletarako altzari modularrak, tokian tokira egokitzen direnak ikusi dituzte. Zuraren gainean laka emateak ere modan jarraitzen omen du; zura berriro bistaratzeko joera dator, beraz. Koloreei dagokionez, zuria, beltza eta grisaren erabilera bere horretan darrai eta, oro har, kolore naturalak ikusiko ditugu. Aipatutako koloreekin, urdinerantz doan berdea eta mostaza kolorea konbinatuko dira, esaterako. Ehunetan ere antzeko joera nabari da eta kotoia eta lihoa lako material naturalak erabiltzen dira orain.

Milango azokak ehundaka milaka bisitari batu zituen apirilean. Ohiko erakusleihoez gainera, 'show room' delakoak ere izan ziren eta hantxe erakutsi zituzten sektoreko enpresa handiek euren nobedadeak. Baina azoka ez da bereziki horretara egokitutako eraikinerak bakarrik mugatzen; azoka Milan osora hedatzen da egun horietan: gazteek euren diseinuak erakusteko lokalak zabaltzen dituzte eta herritar askok euren etxeak ikusgai jartzen dituzte, barruko diseinuagaz gozatzeko aukera eskainiz.



Zuri, beltz eta gris koloreekin batera, urdinerantz doan berdea nagusituko da, esaterako



etarte

www.etarte.com

Ideiak sortu
Diseinatu
Eraiki
Apaindu
Bermatu



Euskal Herria z/g. ZALDIBAR
T/F: 94 603 04 16
info@etarte.com



Bizimodu eta gustuen araberako sukaldeak

Sukaldearen tamaina eta espazioaren arabera hainbat aukera izango ditugu; beharren arabera aukeratu behar da dekorazioa



Sukaldea erabiltzailearen beharretara egokitu behar da; horixe diote adituek. Hain zuzen ere, bi sukalde mota bereiz ditzakegu: sukaldea bera maite duenarentzakoa bata eta bertan denbora gutxi emango duenarentzakoa bestea. Sekulako sukaldea sortzen badugu eta ez badugu asko erabili-ko, alferrikako inbertsioa izan daiteke; bertan denbora asko pasatzekoak eta jaki ugari prestatzekoak bagara, komeni zaigu leku funtzional eta atsegina egitea.

Bizimoduaren arabera

Etxe gehienetan sukalde txikiak eraikitzen direla esan digute dekoratzaileek. Horri egungo bizimodua gehituta, jendeak dekorazio normalera jo ohi du. Espazioak bete eta bertan pasako dugun denbora apurre-rako instalazio funtzionala egin.

Etxe handia izateko aukera dutenek, sukaldea etxeko topaleku bihurtu dezakete. Berau, otorduetaz gainera, tertuliarako gune aproposa da. Hori dela-eta, asko dira sukalde erdian mahai handiak ipintzen dituztenak.

Irlak eta penintsulak

Aurten ere modan egongo dira irla edo penintsula itxurako barrak; gehienetan nahiko altuak izaten dira. Lekua edukiz gero, lasai egoteko eta berba egiteko aukera eskainiko dute.

Aurten ere modan egongo dira irla edo penintsula itxurako barrak; gehienetan nahiko altuak izaten dira



piolarrabe

fray juan de zumarraga 19
48200 durango
Tel.: 94 681 16 96
Faxa: 94 681 11 01

elexalde 28
48940 leioa
Tel.: 94 463 13 21
Faxa: 94 463 60 67



Kolore biziak gauza zehatzetarako erabiliko dira aurten, kontrastea helburu

Koloreei dagokienez, duela urte batzuetako kolore biziak alboratu (laranja, pistatxo...) eta neutroak nagusituko dira sukaldeetan. Beltza, marroia, zuria, grisa, krema... zuria asko erabiliko ei da egurragaz konbinazioan. Kolore biziak gehigarrietarako utziko ditugu, dekoratzaileen arabera, aulki edota zapietarako, esaterako. Hori bai, argiztapen arazoengatik apur bat alaitu gura izanez gero, aukera ona izan daiteke kolore biziak sartzea.

Distribuzioa

Espazio handiko sukaldea izanez gero, asko aprobetxatu daiteke distribuzioa

egiterakoan. Gero eta gehiago dira kekanpai edota hozkailu handiak jartzen dituztenak.

Hala ere, gaur egun, eraikuntzan sukalde txikiak egitera jotzen da, eta hor sortzen dira arazoak. Batez ere jende gazteak mugatua ikusten ohi du bere nahia sukaldeari begira. Kasu hauetan, oso gaitza da sukaldean mahai edo barra bat ipintzea, baita etxetresnak gura den moduan banatzea ere. Hori dela-eta, asko dira sukaldea eta egongela batzen dituztenak, edota etxeko bi leku hauen artean armairu bat soilik jartzen dutenak, eraginkortasuna bilatuz.





ALTZARIAK INTERIORISMOA MOLDAKETAK

DIKON






banatzaile ofiziala

Madalenoste, 7 • 48200 Durango • Tel./Fax: 94 620 24 70 • Mug.: 667 327 337 • dikon-inigo@telefonica.net

Bainugelan ere funtzionaltasuna eta praktikotasuna zutabe nagusi

Garbiketa errazten duten eran kokatzen dituzte gaur egun iturgin eta diseinatzaile gehienek bainugeletako elementuak

Ezaugarri nagusia funtzionaltasuna izan arren, asko garatu da bainugeletarako diseinuen aukera



Esekitako komun-ontziak, konketak zein armairuak asko ageri dira bainugela katalogoetan zein eskualdeko dendetan ere.

Bainugeletarako dekorazio elementu guztiak diseinatzeko zein hautatzeko ideia nagusia, funtzionaltasuna, praktikotasuna bilatzea izaten da: garbiketa errazten duten eran kokatzen dituzte gaur egun iturgin eta diseinatzaileek elementuak. Bainugela tradizionalan erratza pasatzea zailtzen zuten ertzak saihesteko modua dira aipaturiko eseikitako komun-ontzi, konketa eta armairuak.


Bainugela bi dauzkaten etxeetan, batean bainuontzia eta bestean dutxako platera ipintzea da egun bezero gehienek egiten duten hautua, eta kristalezko manpara aukeratzen

dute dutxako platererako. Aukeraketa horietan ere nabarmena da praktikotasunaren bilaketa: etxeko umeendako zein mugikortasun arazoak dituzten nagusiendako ere erosotasun handiena emateko.

Hidromasajerako iturriak

Eguna energiagaz hasi edo egun nekagarri baten ostean erlajatzeko, dutxarako aukeren artean, gero eta etxe gehiagoan ikusten dira hidromasajerako iturriak. Ahalik eta diseinu eta distribuziorik sinpleenak ipintzen dituzte iturginek gehien: dutxan bertan ere ahal den espazio libre guztia utzita, ahalik eta erosotasunik handiena lortzeko.

Bainugelen diseinu orokorrean, lerro zuzenak gailentzen dira diseinatzaileen proposamen berrienetan: armairuak zein bainugelako bestelako elementuak ere ahalik eta soil eta sinpleenak izaten dira.



oiz

M.Z.O. ITURGINTZA GASA BEROGAILUAK ERAIKUNTZA S.L.

SANEAMENDU, LOZA, GASA, BEROGAILUAK, BAINUGELARAKO ALTZARIAK

Biltegia:
UAI Industriagunea, 2 C - 48215 IURRETA
Tel.: 946 816 051 • Faxa: 946 818 545

Erakusketa-Denda:
Plateruen Plaza, z/g. - 48200 DURANGO
Tel.: 946 810 693 • Faxa: 946 818 545



Armairuak aukeratzera, biltegiatzeko espazioa ondoen aprobetxatzea izaten da bainu-gelen altzari diseinatzaileen jomuga.

Ispilua: dekorazio erabilgarria

Bainugelako hormen koloreekin ere jokatzeko dute gaur egun diseinatzaileek: kolore edo formatu desberdinetako azulejuak uztartzen dituzte euren proposamenetan. Dekoraziorako elementu funtzionalenen artean, azpimarragarriak dira besteak beste, ispiluak dauzkaten armairuak.

Etxeke gainontzeko espazioak diseinatzerakoan bezala, kalitatearen arabera askotariko prezioan topatuko duzue bainugela atontzeko eskaintza. Aipaturiko fintzionaltasunaren eta sinpletasunaren ideian oinarritutako aukerak, poltsiko guztientzako lakoak topatu daitezke merkatuan.



Armairuak zein bainugelako bestelako elementuak ere ahalik eta soil eta sinpleenak izatea bilatu ohi da

Hainbat kolore eta formatuko azulejuak uztartzen dituzte diseinatzaileek euren proposamenetan



Royuela decor
Kalebarria, 40 Durango • Tel.: 94 681 05 82
Faxa: 94 603 03 45 • royuela@royueladecor.com

Royuela Decor, S.L.
Revestimientos y Tapicerías
Fray Juan de Zumarraga, 2 Durango
Tel.: 94 681 49 46 • Faxa: 94 620 25 97

urtiaga
gremioen koordinazioa

Solaguren kalea 3
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
E-mail: urtiaga.sl@terra.es
MATIENA
ABADIÑO

**BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA**

Gortinak ilunak, baina gardenak



Gortinetan haxe da aurtengo moda: kolore ilunak (grisa, beltza...) baina argitasunari pasatzen uzten diotenak. Horrez gainera, azken urteetako joerari jarraituz, jauskera zuzeneko gortinak dira salduenak, bolumen edo izurrik bakoak. Estore edo japoniar estiloko gortinek gero eta harrera hobea dute gazteengan. Adinean gora doazenek, ordea, gorputz handiko gortinen alde egiten dute oraindik.



Lanpara handiak edo kontsumo txikikoak

LDE motako argiak gero eta gehiago erabiltzen dira, eroak direlako; horrez gainera, lanpara handiak erosteko joera zabaldu da

Egia da gortina argiek edo altzari mota batzuek kanpoko argiari errazago uzten diotela sartzen, baina etxe bateko argiztapena diseinatzekoan ideia bat garbi izan beharra dago: gauez argitasun artifiziala da argi bakarra. Hormako koloreak lagundu dezake argitasuna barreiatzen (zuri koloreak) edo lausotzen (urdira, berdea...).



Argi zuriaren eta horiaren artean tarteko tonu asko daude. Normalean, egongeletan hori tonua aukeratzen da, gozoagoa eta samurragoa delako. LDE argiak modan daude, arrazoi bigatik: kontsumo txikikoak dira eta aipatu dugun argi tonu erlaxatua eskaintzen dute. Sukaldean, aldiz, argi zuriaren eta horiaren tartekoren bat da egokiena.






TOILES NATUR
(LEHEN MAISON DECOR ZENA)

Askatasun etorb. 16
48200 Durango
Tel.: 94 466 87 79
durango@mdtoilesnatur.com





ILARGI

ARGIGINTZA

Askatasun etorbidea 20 . 48200 DURANGO Tel-Faxa: 94 681 24 92

Tamainuari dagokionez, gero eta lanpara handiagoak erosteko joera dago. Sabaira jositako lanparen artean 80X80 neurrikoak edo eta 80X100ekoak erosi ohi dira. Horren arrazoia ez dago funtzionaltasunean, estetikan baino; funtzio estetikoa dute.


Sukaldean argi zuriaren eta horiaren tartekoren bat aukeratu ohi da; tonu askotako argiak daude



Diseinuzko alfonbrak eta zoru laminatuak



Alfonbrei dagokionez, diseinuzkoak erosteko joera dago. Koloreen artean ez dago besteen gainetik nagusitzen denik. Aspaldian dende asko igarri dute zoru laminatuengatik interesa; oso imitazio txukuna dira eta, gainera, garbitzeko errazak, eta, gaur egungo gazteek praktikatutasunera jotzen dute.



MARKIEGI



ARGIZTATZE TEKNIKAK
ARGINDAR PROIEKTUAK



Plateruen plaza, 4 behea DURANGO

Tel.: 94 620 35 20 - 94 620 21 76 Faxe: 94 681 56 95

markiegi@markiegi.com



Zuraren imitazioa nagusi zoruetan


Imitaziozko zoruak berotasuna, elegantzia eta erosotasuna eskaintzen dizkio bezeroari

Tendentziak mantendu egingo dira. Batez ere, zuraren imitazioa izango da salduko dena; zorurako zein etxea apaintzeko balio du, gainera. Batez ere, etxe berrietan nagusitzen ari da joera hau.



Mota honetako zoruak hainbat abantaila aurkezten ditu: berotasuna, elegantzia, konforta edo erosotasuna. Horiez gainera, epe luzerako iraunkortasuna eskaintzen du material horrek; mantenu egokia eskainiz gero, bizitza osoan ere iraun dezake horrelako zoruak. Material sendoa izan arren, modu egokian garbitu behar da, eta, horrez gainera, elikatu ere egin behar da.

Zuraren imitazioaz aparte, badira bestelako joerak zoruetan ere. Koloreari dagokionez, minimalismoak indarrean jarraituko du; zuriak eta beltzak asko ikusiko dira, beraz. Amaitzeko, azuleiu dekoratuak ere aipatu behar dira. Estilo honetan malba eta arrosa koloreak nagusituko dira, gehienbat.



Etxebizitza berrietan ari da nagusitzen batez ere imitaziozko zoruak jartzeko joera

Azuleju dekoratuak nabarmentzen ari dira; malbak eta arrosak nagusituko dira batez ere

LAGOI S.L.

ERAIKUNTZA MATERIALAK



Biltegia: Arriandi auzoa, z/g • 48215 IURRETA • Tel.: 94 620 33 22 • Faxe: 94 621 58 74

Erakusketa: Montevideo etor., 9 • 48200 DURANGO • Tel.: 94 621 52 84 • Faxe: 94 621 52 85

www.lagoi98.com



Aukerak ugaitu dituzte aluminioak eta textiline-ak

Lorategi edo terrazak janzteko altzariak aukeratzeko orduan zura da oraindik ere tendentzia nagusia, teka edo akazia izanik zur noble aukeratuenak; biak ere atari zabalean egoteko egokiak, hezetasunari oso ondo eusten diote-eta. Hala ere, badago alternatibarik: aluminioa edo textiline (fibra sintetikoa). Altzari multzo arinagoak dira, moldatzeko aukera emanez eta kolore aukera

zabalduz. Merkeagoa ere bada.

Itzalkina eta kulunka


Osagarrien artean banana erako itzalkinek hartu dute orain lekua. Hanka bakardun itzalkinak dira; albo batetik abiatuta zutaina makurtzen zaienak. Pisua daroate lurrean, besoa tolestu eta eusteko aukera emanez.

Borobildutako formadun ume zein helduentzako kulunkak ere ezin ahaztu.



Soropila edo lauzak

Terraza handietan gero eta tendentzia hedatuagoa da soropil artifiziala; gainera, itzel hobetu da kalitatea: badira "orrazten" direnak, elektrizitate estatikoaren bitartez tente mantenduz. Garestiagoak dira lauzak. 'Lego' antzekoa dute azpian eta oso ondo egokitzen dira: ipe zura eta lauza sintetikoa dira aukera nagusi biak. Gogorak dira, aire zabalean oso ondo irauten dutelarik.



Barbakoa, leku murriztuei ere aurre eginez

Espazio arazoei aurre egiteko geroago eta zabaldago dagoen aukera da barbakoa eramangarria (gasagaz zein egur-ikatzagaz dabilena). Altzairu herdoilgaitza, txapa galbanizatua edo pintatutako txapa. Aukera sorta geroago eta zabalagoa da.



Bertan izango dozu:

- Elektrizitatea
- Burdindegia
- Lorezaintza tresnak
- Fitosanitarioak
- Pintura eta osagarriak
- Animalia txikien elikadura
- Etxeko tresnak - Garbikariak - Arropa eta oinetakoak -Automobil tresnak



SAKE S.A. BRICO CENTRO EUSKOLUR
Pol Eitua. Edif. San Fausto, 1
48200 BERRIZ
Tels.: 94 622 53 34/16/93
Fax: 94 622 54 56
euskolur@sake.es

BAUTISTAN BI LAGUNENTZAKO EHUNKA ITSAS BIDAIA OPARITZEN JARRAITZEN DUGU **OPARIA ZUZENEAN**

1.900 EUROKO GUTXIENeko EROSKETAGATIK

Bautistan inoiz ez genizuke ezer oparituko
lehenago geuk probatu barik.
Zure lekuan geu joan gara sasoiko lehenengo itsas bidaiara:
BARTZELONA-TOULON-SARDINIA-BARTZELONA
eta ziurtatu egiten dizugu esperientzia
ZORAGARRIA izan dela
ZATOK ETA FROGATU EGIZU
Jon Ugarte
Bautista altzariak eta dekorazioa


BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO - ABADIÑO

IBERO cruceros-en laguntzarekin:



Eguzki sartzea. Sardiniatik irteten.
2011ko apirilaren 2a. 20:00.



Popako haurtzaindegia. Bartzelonatik irteten.
2011ko martxoaren 31. 18:00.

Zurekin ospatu gura dugu gura 40. urteurrena eta harritu egin gura zaitugu.

**EHUNKA ITSAS BIDAIA OPARI, BI LAGUNENTZAKO
BETIDANIK BEREIZTU IZAN GAITUEN ARGITASUNAREKIN.**

www.bautistamuebles.com

 **94 672 77 00**

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3. irteera) | Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

Itsas bidaia kopuru jakin bat amaitu artekok eskaintza. Instalakuntza libreko elektrotresnen erosketak ez da baliagarria eskaintza honetarako.

ARTEA > ERAKUSKETA

Carlo Lauricella-ren 'From sea to sea' Museoan bisitagai

Durangoko Arte eta Historia Museoan, maiatzaren 30era arte daude Carlo Lauricella italiarraren instalazioak ikusgai

From sea to sea izenpean, Palermon jaiotako Carlo Lauricella artistak 2007an eta 2011n burututako instalazio berezi bi dira maiatzean Durangoko Arte eta Historia Museoan bisitagai dauzkagunak.

Recuperi eta *Nero Inaspetta-to* izenekoak dira museoan lehenengo solairura gerturatzen denak ikusgai izango dituen instalazioak.

Era poetikoan, erakusketara gerturatzen denaren "sentsibilita-

te soziala berraktibatu" gura du egileak, artea baliatuz; Europara bidean itsasoan hildako etorkinena lako gaurkotasunezko gai latzak museoan barneratuz. Estetikak eta etikak bat egiten duten espazioa sortu gura izan duela bere lanagaz azaldu du egileak.

Aldameneko argazkian jasotako *Recuperi* izeneko instalazioan, urez betetako ontzietan erretratu batzuk daude flotatzen. Egilearen proposamena, bisitari bakoitzak ontzi horretatik bat hautatu eta horman zintzilikatzea da. Itsasoan desagertutako etorkinak irudikatzen dituzte erretratuok.

Erretxinagaz egindako figura batzuek osatzen dute, bestalde, Lauricellaren lanik berriena den *Nero Inesperatto* instalazioa. ■ I.E.



Europara bidean hildako etorkinen tragediari buruzko gogoeta

LEHIAKETA > AZOKA

Liburu eta Disko Azokaren irudia hautatzeko lehiaketa abian

Datorren abenduan 46. edizioa ospatuko duen Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren irudia aukeratzeko lehiaketa antolatuko du Gerediaga elkarteak. Aurreko urteetako edizioetako lehiaketetan ez bezala, aurten, Azokaren irudia diseinatzeko eskatu diete parte-hartzaileei.

Uztailaren 15era arte aurkeztu daitezke proposamenak

Epaimahaiak irabazle hautatzen duen irudi proposamenaren egileak 1.300 euroko saria eskuratuko duela eta lana aurkezteko epea uztailaren 15era artekoa izango dela aurreratu du antolakuntzak. Informazio guztia www.gerediaga.com eta www.durangokoazoka.com webguneetan dago eskura. ■ I.E.

MUSIKA > EMANALDIA

The Mahones, Street Dogs eta Fiachras taldeen musika Durangon

Maiatzaren 20an, 22:00etan hasita, eskainiko dute hiru taldeok zuzeneko Plateruenean



Punk-rock doinuak jorratzeari 90eko hamarkadan ekin zion goiko argazkiko Canadako The Mahones taldea da datorren barikurako Plateruenean hiru musika proposamen interesgarrietako bat.

Ipar Amerikako talde biren punk rocka zuzenean entzungai

Taldea sortu zuteneko 20. urteurrenko bira burutu zuten iaz, eta 2010ean kaleratu zuten *The Black Irish* izeneko azkenengo diskoa ere. Irlandar jatorriko musikariek osatzen duten taldea da The Mahones, eta euren musikari "punk zelta" esaten diote.

Bostonetik dator maiatzaren 20ko Plateruenean kartela osatzen duen Street Dogs taldea. Frantziar kontzertu pare eskaini eta gero datoz euren punk-rock doinuak Durangon eskaintzera.

Canada eta Bostongo taldeen aurretik, Plateruenean euren doinuak eskaintzen, Fiachras talde bergararreko musikariek jardungo dute. Rock, country eta amerikar folk kutsuko doinuak eskaini dituzte euskaldunek. ■ I.E.

LITERATURA > SARI-BANAKETA

VIII. Literatur Lehiaketa arrakastatsuaren sari banaketa ekitaldia

Joan zen barikuan, Ibarretxe kultur etxean, burutu zuten lurretako literatur lehiaketaren sari banaketa ekitaldia

Ume, gazte eta helduen sailetan, guztira ia 400 lagunek hartu dute lehiaketaren aurtengo edizioan parte. Bigarren hezkuntzako eta Batxilergoko 267 lagunek bidali dituzte euren lanak lehiaketara.

Inoizko parte-hartzaile kopururik handiena izan da lehiaketan aurten, eta epaimahaiaren berbetan, "kalitate handiko lanak jaso" dituzte, gainera.

Lehiaketa gizartearen kultur aniztasunaren isla dela ere azpimarratu dute Herri Biblioteka-koek; "lehenengoz, jatorriz bertakoa ez den ikasle batek jaso" ei du, antolatzaileek azaldu dutenez, lehiaketako sarietako bat.

Helduen sailean, Javier Diaz bilbotarrak eta Aitor Albistur gipuzkoarrak jaso dituzte lehenengo saria eta aipamen berezia.

Guztira, ia 400 lagunek hartu dute lehiaketaren aurtengo edizioan parte

Heldu bertsogileen sailean, berriz, Eñaut Aiertzaguenaren iurretarraren *Gutuna* eta Justo Delgadoren *A una madre ejemplar* bertso-papera saritu ditu lehiaketako epaimahaiak. ■ I.E.

bildu berriz

eman botoa

herri parte-hartzaile eta biziaren bila

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak

Pazkoa: Jesusen berbizkundera, gure fedearen ardatza

Judeguk egiten eben lez, geuk ere Pazkoa udabarriko lehenengo ilargi beteagaz batera ospatzen dogu. Horregaitik Aste Santuko egunak aldatu egiten dira urte batetik bestera. Aste Santua, barriz, kristauontzat urteko "Aste Nagusia" dogu, aste honetan ospatzen doguzalako gure kristau fedeko misteriorik garrantzitsuenak: Jesusen Nekaldi, Heriotz eta Berbizkundera. Jesusen Berbizkundera, barriz, gure kristau fedearen ardatza dogu.

Gure fedea Jesus berbiztuagan

Eta guk, gaurko kristauok, zer sentitzen dogu Jainkoak Jesus berbiztu daua sinisten dogunean? Ba, Jesus berbiztuak arrazoia eukala.

Izan ere, Jesus berbiztuari esker, badakigu Jainkoak bizitza maite daua. Horregaitik Jesusentzako premiazoagoa zan gaisoen osasuna, larunbateko lege eta tradizio guztiak baino.

Jesus berbiztuari esker, badakigu Jainkoak errubako biktima guztiei justizia egiten deusela. Horregaitik, heriotza dan lekuan, bizitza jarri daigula; gaiztakeria dan lekuan, ontasuna; guzurra dan lekuan, egia; gorrotoa dan lekuan, maitasuna.

Jesus berbiztuari esker, badakigu Jainkoa mundu honetako kurutzera-tuekin identifikatzen dala, inoiz ere ez borraroeekin. Horregaitik hobeto ulertzen dogu zergaitik egoten zan Jesus sufritzen egozanekin eta zergaitik defendatzen zituan pbreak, gosekilak eta baztertuak, geu ere errukiorrak izan gaitzan.

Eta Jesus berbiztuagan sinistek haxe esan nahi dau: ez nekeak, ez injustiziak, ez minbiziak, ez infartoak, ez metraileteak, ez pekatuak, ez heriotzak ez daukela azkeneko berbea. Azkeneko berbea Jesus berbiztuak daukala, Bera dalako bizitzaren eta heriotzaren Jauna: "Neu naz berbizkundera eta bizitza; Niregan sinisten dauana, hiliarren ere biziko da; eta Niregan sinistuez bizi daitena, ez da inoiz hilgo. Sinisten dozu hau?" (Jn. 11, 25).

Garitaonandia eta Sardui'tar Jesus, Begoñako Santutegiko Erretora

Klik batean



Gorune handiegia

Abadiñoako Traña-Matiena auzoan, behin-behineko tren geltokiaren parean, alda-pa handiko gorunea dago. Hainbat auto ikusi ditut bertan lurra jotzen, eta lehen-goan neuk ere jo nuen neureagaz. Goruneak ipintzeari ondo deritzot, baina hor-ko horretan eskua joan zaiela uste dut. Ez ote da posible gorunea mantenduz, zelan-bait apur bat leuntzea? Eskertu nuke.

Patxi Igartua (Abadiño)

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2011ko maiatzaren 13a - 10. urtea - 415 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar
Administrazioa:
Miren Abasolo.
Publizitatea:
Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde, Aritz Maldonado.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

bildu elorrio

esan eta egin



bozkatu bildu

maiatzak
15
domeka

- Goizean kale animazioa herrian zehar
 - 15:00etan HERRI BAZKARIA plazan
 - 19:30ean MITINA Plazan
- zatoz!!***



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Aste bitartean
menu berezia 16 euro, 18e/ardoa,
20e/kriantza. Afariak egunero
astelehen eta igandeak ezik.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.





Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

*Jatetxe
gida*



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik
ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak
enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.



Hotel Lagunetxea

Urkiolako Santutegiaren ondoan
Tel.: 94 465 60 10

Eguneko menua.
Enpresa-bilerak.
Denetarikoz ospakizunak.
Askariak.

**Hemen agertu
gura
badozu,**

DEITU

94 621 79 02

KIROLAK >

“Etxekoekin jokatzuz emaitza onak lortu daitezkeela erakutsi dugu”



Hogei urte baino gehiago daramatza Unai Zamalloa hainbat mailatako taldeak entrenatzen.

Bi denboraldi daramatza Unai Zamalloa durangarrak Zornotzako saskibaloit taldea entrenatzen. EBA mailako lehenengo denboraldian, pronostikoen kontra, mailari eustea eta 7. amaitzea lortu dute, gainera.

Bizkaiko Federazioaren 'Entrenatzaile onenaren Saria' jaso duzu orain dela denbora gutxi. Zer suposatu dizu?

Saria niri eman didate, baina aipatu beharra daukat Mikel Garitaonandia (2. entrenatzailea) eta Joxe Etxeberriaren (Lehendakaria) ekarpena garrantzitsua izan dela. Egindako denboraldiari emandako saria izan dela uste dut; Ibon Carretok ere jaso duelako jokalaria onenaren saria.

EBAn egindako lehenengo urtean 7. amaitu duzue. Pozik?

Denboraldi itzela egin dugula uste dut. Hasieran momentu kritikoak pasatu genituen, eta mar-txa hartzea asko kostatu zitzaigun. Duda asko izan genituen hasieran, baina aurrera egitea lortu dugu.

Zeintzuk izan dira denboraldiko gakoak?

Talde moduan funtzionatu dugu,

“Gure sekretua talde moduan funtzionatzea izan da, gehienbat”

“Hasieran momentu kritikoak igaro arren, denboraldi izugarria egin dugu”

eta, gehienbat, hori izan da sekretua. Bestalde, oso garrantzitsua izan da Ibon Carretoren ekarpena. Konfiantza hartzeaz bat, lan izugarria egin du; talde osoak egin du lan izugarria.

Taldeak, orokorrean, aurrerapausua egin du.

Bai, orain bi urte hona etortzeko arrazoietakoa bat hori izan zen. Taldea indartzeaz gainera, harrobia eta azpiegiturak indartzeko asmoa erakutsi dute aspaldian.

Etxekoekin jokatzeko apustua egin duzue, gainera.

Taldearen helburua etxeko jokariekin aritzea da, eta horretarako harrobia landu behar da. EBA mailan mantendu ahal badugu, ondo. Hala ere, gure asmoa ez da EBAn mantentzea soilik, filosofia horri eustea baizik. Etxekoekin jokatzeko emaitza onak lortzea posible dela erakutsi dugu aurren, eta etorkizunean gauza onak lortuko ditugula uste dut.

Zer sentitu duzu Tabirakok maila galdututela ikusita?

Pena. Herriko taldea da, eta jokalaria asko ezagutzen ditut, gainera; horrelako denboraldi gogorra igaro behar izatea penagarria izaten da. Helburua etxekoekin aritzea izanik, etorkizunean gauza

UNAI ZAMALLOA

Jaioterria

Durango

Adina

38 urte

Ibilbidea

- 2009-2011 Zornotza (EBA)
- 2007-2009 Gernika (FEM 2)
- 2007-2003 Tabirako (FEM2)
- 21 urtean behe mailako 15 talde baino gehiago entrenatu ditu

politik egiteko aukera dutela iruditzen zait. Aukera eta baliabideak badituzte.

Zuri dagokizunez, 21 urte daramatzazu entrenatzen. Aldaketa handia nabaritu duzu?

Lehenengo entrenatzaileak formatuago zeuden; gehiago ginen, gainera. Entrenatzaile belaunaldia aldatu egin da, eta entrenatzaile gutxiago dago orain. Azpiegitura eta aukera aldetik, oster, asko hobetu da urteotan. Orain ia leku guztietan daude kantxa duinak.

Nola ikusten duzu Durangaldeko harrobia?

Kuantitaboki, gero eta jokalaria gehiago ditugu, baina gero eta entrenatzaile gutxiago gaude, eta hori igarri egiten da; hainbeste gazterentzako entrenatzaile gutxi gaude. Egoera horri buelta eman behar zaio.

“Entrenatzaile gutxi gaude, eta horri buelta ematen saiatu behar dugu”

EBA mailako taldea eta beheko mailakoak batera entrenatzea osagarria da?

Perspektiba izaten laguntzen du. Jokalarien garapenean gehiago laguntzen duzu, goiko taldeetan ikasitakoa behekoetan aplikatuz. Entrenatzailearen desafio handiena taldea aurrera ateratzea da; maila edo adina kontutan hartu barik.

Aurrera begira, zer asmo edo helburu dituzu?

Beste denboraldi batean, behintzat, Zornotzan jarraituko dut. Beheko mailako talderen bat hartzeko asmoa ere badut. Ez dut nire burua talde profesional batean ikusten, baina entrenatzaile izaten jarraituko dut, hori seguru. ■ Aritz Maldonado.

Otxomaioetako golf txapelketa, maiatzaren 21era atzeratuta

Bihar Dimagolf zelaian jokatzeakoa zen Otxomaio Txapelketa astebete atzeratu da. Zelaian mantenu-lanek behartu dituzte antolatzaileak erabaki hori hartzera. Txapelketa, beraz, maiatzaren 21ean jokatuko da. Izena emateko ohiko bideak jarraitu ahal direla adierazi dute antolatzaileek; zelaia- ren webgunean edota 94 4046147 telefonoan eman daiteke izena. Aurreko txapelketetan legez, 20 euro ordaindu behar da izena emateko. Txapelketa hau, Dimagolfen ospatzen diren gehienak bezala, 2011ko rankingerako puntuagarria izango da. ■ A.M.

Berasaluze IX.a eta Mitxelena garaile Abadiñon

Amaitu da Abadiñoko Sanprudentzio txapelketa. Hainbat astean lehian jardun ondoren, Berasaluze IX.a berriztarra eta Mitxelena izan dira garaile. Maiatzaren 7an jokatu zen eskuz binakako nagusien finala; bertan, 22-15 irabazi zieten Bengoetxeak eta Altunak osaturiko bikoteari. Nagusien finalaren aurretik, kadete eta gazte mailako finalak jokatu zituzten. Lehenengoan Altuna eta Goñi amezketarrak gailendu ziren; 22-11 irabazi zioten Garaio eta Aldunzin burlatarrei. Gazteetan ere amezketarrak nagusitu ziren. Gallurralde eta Tolosak 10-22 irabazi zuten Agirre eta Apeztegiaren aurkako finalean. ■ A.M.

Mendi ibilaldia antolatu du lurretako Zaldaik

Zapaturako ibilaldia antolatu du lurretako Zaldai mendi taldeak. Goizeko 08:00etan Andaparapen batuko dira ibiltariak; ibilaldia bera Mañariatik abiatuko da. Errialtibaso (1018 m) eta Saibi (946m) igaro ondoren, Urkiolara helduko dira ibiltariak, oster, ere Mañarira itzultzeko.

Ibilaldian parte hartzeko, bihar 08:00etan eliza osteko Andaparapen agertuta nahikoa izango da. Durangaldeko mendietan zehar hainbat ibilaldi antolatzen ari da Zaldai mendi taldea, eskualdea eza-gutzeko asmoagaz. ■ A.M.

Iñaki Lejarreta berriztarra Portugalen arituko da bihar

Munduko Koparako prestatzeko baliatuko du Orbeako txirrindulariak biharko proba. Lleidan irabazi berri duela doa txirrindulari berriztarra.



Bi astean lehiatu gabe egonda, "uste baino hobeto" aritu zen Lejarretak Val de Lorden.

Munduko Kopako probetara ahalik eta maila onenagaz heltzeko asmoa duela adierazi du Iñaki Lejarreta berriztarrek. Aste batzuetan geldi egon ondoren, lehiari ekin dio berriztarrek. Bide horretan, bihar Portugalen lehiatuko da. Lejarretaren berbetan, prestatzeko hartuko du proba. "Proba garrantzitsua da Portugalekoa; prestatzeko balio izatez gainera, rankingerako puntuak hartzeko ere

balioko dit". Orbea taldeak Portugalgo proba horretan parte hartzen duen lehendabiziko aldia da biharkoa.

Horren ondoren, gogoa Munduko Kopan jarriko du berriztarrek. Maiatzaren 22an Ingalaterran ospatuko da lehia horretako lehenengo proba. Aste bat geroago, hilaren 29an, Alemanian izango da bigarren proba, Offenburgen. Hilaren 8an, Munduko Kopa horretara-

ko prestatzeko asmoagaz lehiatuko da Lejarreta Val De Lorden (Lleida); 6,8 kilometroko ibilbidea 1:22'09ko denbora eginda bete ondoren, Lejarretak Kataluniako Kopa irabaztea lortu zuen. Erakutsitako mailagaz pozik agertu da Lejarreta. Berriztarrek proban egon zen maila ona nabarmendu gura izan du. Jose Antonio Hermidak (Merida), kasurako, hirugarren amaitu zuen. ■ A.M.

Maria Bazan Espainiako Txapelketan egon da

Joan den asteburuan zehar Formenteran (Balear Uharteak) jokatu zen txapelketa

Eskolartekoen Espainiako Txapelketa jokatu zen maiatzaren 6tik 8ra bitartean. Bertan, Maria Bazan durangarra lehiatu zen; 36 kiloz azpiko mailan lehiatu zen gaztea. Lehenengo lehian,

Bigarren borrokara sailkatzea lortu zuen durangarrak

Aida Fernández mendean hartu zuen durangarrak. Bigarrenen, oster, Rebeca Gonzalezek kaleratu egin zuen judoka durangarra. Sonia Serra izan zen txapelketako garailea. Maila honetako txapelketa batean aritu den lehenengo biderra izan du Bazanek. Erreterian jokaturiko Euskadiko Txapelketa irabazi ondoren lortu zuen Formenterako txartela. 13 urte dauzka Bazanek; txapelketa gehiagotan parte harzeko aukera izango du, beraz. ■ A.M.

Ruben Perez
•Txirrindularia



Zorte hobearen zain

Azken urteotako joerari eutsiz, berriz ekin diet entrenamenduei; denboraldiko lehenenego gailurra igaro dut jada. Aurtengo denboraldiari dagokionez, asko lehiatu naiz; urtarilean Australiako Tour Down Underrean hasi eta maiatzaren 2an Asturiasko Itzulian amaitu nuen arte, 41 egunetan lehiatu naiz. Hainbatetan lortu dugu lehenengo hamarren artean sailkatzea; hala ere, alergiak eragin handia izan dute nigan. Urtean zehar euri gutxi egin du, eta tenperaturak nahiko altuak izan dira; hala ere, alergikoontzako denboraldi nahiko gogorra izaten ari da. Ehuneko ehuna emateko kapaz zaudenean maila ona erakustea gaitzaz bada, pentsa zer gogorra den zailtasunak dituzunean. Alergien erruagatik ezin dituzunean bronkioak guztiz zabaltu, eta beharrezko duzun oxigeno hori guztia heltzen ez zaizunean, muskulaturak igarri egiten du, eta baldintza horietan gaitza da daukazun onena eskaintzea.

Denboraldiko bigarren zati honetako nire helburua Frantziako Tourra izango da. Bavierako Tourrean ekingo diot bigarren zati honi, beraz. Bertan estreinatu nuen lehenengoz nire palmares profesionala, iazko denboraldian. Bigarren zati honetarako zorte handiagoa izatea itxaroten dut; alergia denboraldia amaitu dela kontuan hartuta, osasuna baino ez dut eskatzen. Eta zorte txarrik ez izatea.

*Erredakzioan itzulia

Ballesterosen omenezko desafioak jokatu dituzte

Estatu osoan zehar jokatu dira antzekoak; Nojakoan bi elorriar aritu ziren lehian

Apirilean, Severiano Ballesteros zenaren omenezko golf desafioak jokatu zituzten Estatu osoan zehar; Euskal Herrian ere bai. Begoña Querejeta eta Joaquin Barandiaran elorriarrek

Nojako (Kantabria) txapelketan parte hartu zuten; 41 parte hartzaile izan zituzten txapelketa horrek. Bi elorriarrek emaitza onak lortu zituzten. Barandiaran lehenengo mailako txapeldunordea izan zen; Querejeta, oster, txapelketako emakumezko onena izan zen: "Dama onenari" saria jaso zuen Querejetak. Maiatzaren 7an hil zen Ballesteros, gaixotasun baten ondorioz. ■ A.M.

Begoña Querejeta
desafioko emakumezko onena izan zen

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

IURRETA

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea • Tel.: 94 681 66 73
Iurreta • www.zarateyelexpe.com

Elorrion ere aukera onak

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Berrizek oso gaitz dauka Ohorezko mailari eusteko

Bederatzi puntu daude jokoan, eta lauko zuloa daukate salbazioko postuetarako. Zapatuan Deustuaren kontra jokatuko dute berriztarrek



Loitik taldearen gidaritza hartu duenetik, itxura hobe eskaini dute jokalariek. Kepa Aginako

B i talde jaitsiko dira ohorezko mailatik lehenasunez kora, eta Jose Manuel Loitik gidaturiko taldeak horietako bat izateko aukera handiak ditu; matematikoki sei taldek dituzte maila galtzeko aukera gehien, hala ere, Retuerto, Basurto eta Berriz dira larrien dabiltzanak. Berriztarrek dute gaitzen. Liga amaitzeko hiru jardunaldi geratzen direla, lau puntuko desabantaila du salbazioarekiko. Lehenengo "finala" bihar jokatuko dute, Deustuko taldearen aurka. Deustuarrek ez dute

Aurreko jardunaldian, 0-1 galdu zuen Berrizek Soduperen kontra

ezer jokoan; horren ondoren, Retuerto hartuko dute etxean; gakoa izango da partidu hori irabaztea. Azken jardunaldira bizirik helduz gero, Bermeo menderatu behar lukete Loitiren mutilek.

Matematikoki aukera izan arren, gaitz izango dute berriztarrek. Jose Manuel Loitik taldearen gidaritza hartu zuenetik itxura hobe eskaini du taldeak; edozelan ere, emaitzek ez dute hainbateste lagundu. Taldearen gidaritza hartu zuenean adierazi zuenez, bere helburua azken jardunaldietara bizirik heldzea zen. Azken txanpara bizirik heldu arren, mailari eusteko gaitz izango dute. Aurreko jardunaldian 0-1 galdu zuten berriztarrek Soduperen aurka. ■ A.M.

R7ko hirugarrena jokatuko dute DRTk eta Elorriok

Aratz Gallastegiren taldeak Donostian jokatuko du hirugarren jardunaldia. Elorriokoek, oster, Hernanin jokatuko dituzte euren partidak



Bosgarren jarraitzen dute durangarrek. Kepa Aginako

Euskadiko R7 txapelketetako hirugarren jardunaldian DRT Ordizia eta Bera Beraren aurka lehiatu beharko da. Senior mailako A multzoko lehenengo bi sailkatuak dira bi taldeok, partidu lehiatuak izango dira, beraz. Aurreko zapatuan jokatutako

Sailkapeneko lehenengo bien kontra jokatuko behar du bihar DRTk

hiru partiduetako bakarra irabazi zuen Aratz Gallastegik gidaturiko taldeak; Gernikako bizkaitarren aurkakoa, hain zuzen ere. Ordiziaren aurka 7-17 galdu zuten; Getxoren aurka, oster, 12-26 galdu zuten. Emaitza hauekin, DRT sailkapeneko laugarren postuan dago.

Senior B multzoko sailkapenean hirugarren dago Elorrio

Elorrioko errugbi taldeari dagokionez, lau partidu jokatuko beharko ditu bihar. Donostiako Atletico, Universitario Bilbao, Hernani eta Uribealdea taldeen aurka jokatuko du. Aurreko jardunaldiko lau partiduetako bi irabazi zituzten elorriarrek, eta beste batean berdintzea lortu zuten. B multzoan, hirugarren daude elorriarrek. ■ A.M.

Iurretak, Atxondo eta Mallabia aurrera Bizkaiko Herri Artekoan

Bizkaiko Herri Artekoak aurrera darrai. Bigarren fasea gaindituta, hirugarrenari ekingo diote Iurretak, Atxondok eta Mallabiak. Iurretak Durango garaitu behar izan zuen horretarako. Joaneko zein itzuliko kanporaketetan gailendu dira iurretarrak. Atxondoko pilotariak urduliztarrek hartu behar izan zituzten mendean. Mallabitarrek, berriz, Arrigorriagari irabazi zioten. Hirugarren fase honetan iazko finalistak sartuko dira lehian; mallabitarrek horietako baten kontra jokatuko beharko dute; Galdakaoren aurka, hain zuzen. Iurretak

Durangarrak, esku huskakoa zein zestan, kalean geratu dira

Zaratamoko taldea izango du aurrean, eta atxondarrek, euren aldetik, Munitibarren kontra jokatuko beharko dute. Lehenengo bi faseak gaitzitu dituzte hiru herriotako taldeek.

Bestalde, zesta puntan, porrot latzak jaso ditu Durangoko taldeak. Gernikak joanekoan zein itzulikoan jokatutako sei partiduetatik irabazi dizkie. Horrenbestez, txapelketatik kanpora geratu dira Durangoko bi taldeak. ■ A.M.

Agenda

FUTBOLA

LEHENBIZIKO ERREGIONALA

Zaldia - Gatika B

Zapatuan, 18:30etan, Solobarrian

SASKIBALOIA

LEHENGO AUTONOMIKOA

Tabirako - Azysa Ardoi

Zapatuan, 20:00etan, Landakon

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL B MAILA

Elorrioko Buskantza - Soloarte

Zapatuan, 19:00etan, Elorrioko kiroldegian

EUSKAL LIGA

Sasikoa B - Mallabia

Zapatuan, 19:30etan, Landakon

LEHENTASUNEZKO MAILA

Presion Break - Reformalux

Zapatuan, 16:30etan, Berrizburu kiroldegian

BIGARREN MAILA

Gu Lagunak - Scalibur

Zapatuan, 17:30etan, Landakon

PILOTA

BIHARKO IZARRAK

- Narbarte - Untoria / Ansotegi - Olalde - Arrese - Landaburu/ Elezkano - Aldape

Eguenean, 21:30etan, Mallabiko pilotalekuan

BIZITZA OSOAN ZEHARREKO IKASKUNTZA

IKASKUNTZARAKO BITARTEKARITZA ZERBITZUA

25 urtetik gora dituzten eskualdeko guztiei zuzendutako Ikaskuntzarako Bitartekaritza Zerbitzua - Durangaldeko Behargintza

Zerbitzuak eskaintzen duena:

- **PERTSONENTZAT**
Durangaldean dauden ikasteko aukera guztiei buruzko **INFORMAZIOA** eta pertsona bakoitzarentzat egokienak diren aukerei buruzko kalitatezko **AHOLKULARITZA**.
- **PRESTAKUNTZA ZENTROENTZAT**
Eskualdeko prestakuntza eskaintza era koordinatuan eta eguneratuan jasotzen duen datu-basea.
- **ESKUALDEKO ELKARTEENTZAT**
Eskualdeko elkarteek antolatutako aktibitateen **HEDAPENA**.

www.hiru.com/ikagida
Zerbitzuaren posta elektronikoa:
prestakuntza.mdurango@bizkaia.org
Durangaldeko Behargintza
Laubideta, 6
Tel.: 94 623 25 22
www.mdurango.org

Durangoko Murraltzaren Armarria
Mancomunidad de la Merindad de Durango

Durangaldeko Behargintza
L. Auzolana 1983ko Aro 1011
Agencia Cultural de Durango

Euzko Jaurlaritzako Logo
GOBIERNO VASCO

anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
Abadiño. Muntzaratz. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea (eskegitokia), balkoia, garajea eta trastelekua. Iaberria. Oso polita. 615 007 216

Atxondo. 82 m². 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua. Kanpora. Guztiz berrikoa. Tel.: 628 787 835

Berriz. Duplex zoragarria. 118 m². 1. sol.: sukaldea, komuna, egongela, despentsa eta balkoia. 2. sol.: 3 logela eta 2 komun. Trasteroa eta garajea. 327.000 euro. Deitu arratsalde 680 907 666.

